



# Munduko desberdinkeriei juridikoki aurre egiteko garaia:

Garapenerako Eskubidearen  
Adierazpenetik Hitzarmenera

Garazi Saez Caballero

**Tutoría / Tutorea**  
iker zirion landaluze



Esta publicación ha recibido financiación de aLankidetzta - Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.  
Argitalpen honek eLankidetzta - Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren finantziazioa jaso du.



---

Máster Oficial en Desarrollo y Cooperación Internacional/ Garapena eta Nazioarteko Lankidetzta Master Ofiziala

Trabajo Fin de Máster / Master Amaierako Lana  
Curso 2022/2023 Ikasturtea

*Munduko desberdinkeriei juridikoki aurre egiteko garaia:*  
*Garapenerako Eskubidearen Adierazpenetik Hitzarmenera*  
Garazi Saez Caballero

Tutoría / Tutorea: iker zirion landaluze  
Hegoa. Trabajos Fin de Máster, n.º 103 / Master Amaierako Lanak, 103 zkia.

Fecha de publicación: diciembre de 2023  
Argitalpen data: 2023ko abendua

---



Hegoa  
Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional  
Nazioarteko Lankidetzta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua

[www.hegoa.ehu.eus](http://www.hegoa.ehu.eus)  
[hegoa@ehu.eus](mailto:hegoa@ehu.eus)

UPV/EHU. Edificio Zubiria Etxea  
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81  
48015 Bilbao  
Tel.: (34) 94 601 70 91

UPV/EHU. Biblioteca del Campus de Álava / Arabako Kampuseko Liburutegia  
Nieves Cano, 33  
01006 Vitoria-Gasteiz  
Tel.: (34) 945 01 42 87

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa  
Plaza Elhuyar, 2  
20018 Donostia-San Sebastián  
Tel.: (34) 943 01 74 64



Esta obra está bajo una Licencia Creative Commons Reconocimiento-NoComercial-CompartirIgual 4.0 Internacional (CC BY-NC-SA 4.0)

Agiri hau Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa (CC BY-NC-SA 4.0)  
Creative Commons-en lizentziapean dago.

## **Laburpena**

Mundu mailan, herrien edota pertsonon arteko desparekotasunak gero eta nabariagoak dira. Garapen prozesuak ez ditu emaitza berdintsurik izan munduko bazter guztietan, eta herrialde batzuek lortu duten ongizate maila ez da zoko orotara zabaldu. Egoera horri aurre egiteko nazioarteko mailan proposatutako bideetako bat Garapenerako Eskubidearen aldarrikapenak izan dira. Horietatik abiatuta, 1986an Nazio Batuen Asanblada Nagusiak “Garapenerako Eskubideari buruzko Adierazpena” onartu zuen, pertsonen eta herrien ongizatea bermatu behar zuen testuinguru bat sustatze aldera. Geroztik, eskubidearen egikaritze oso zaila suertatu da, eta, horregatik, Garapenerako Eskubideari buruzko Hitzarmena onartu dadila galdatzen da, eskubide galdagarria izan dadin. Azken urteotan, Hitzarmen Proiektu baten formulatzeari ekin zaio, eta horrela, gaur egun, Hitzarmenaren onarpenaren zain, irekitadagoen gaia da.

## **Hitz gakoak**

Garapenerako Eskubidea, Garapenerako Eskubideari buruzko Adierazpena, Garapenerako Eskubideari buruzko Hitzarmen Proiektua, desberdinkeriak, botere harremanak, Nazio Batuak.

## **Resumen**

Las desigualdades entre los países y/o entre las personas en el mundo aumentan. El proceso de desarrollo ha tenido resultados dispares, y el nivel de bienestar alcanzado por algunos países no se ha extendido a todos los rincones del mundo. Una de las vías propuestas en el plano internacional para hacer frente a esta situación de desigualdad han sido las reivindicaciones del Derecho al Desarrollo. A partir de ellas, en 1986, la Asamblea General de las Naciones Unidas aprobó la Declaración sobre el Derecho al Desarrollo, con el fin de promover el bienestar de las personas y de los pueblos. Desde entonces, la realización de este derecho ha resultado muy complicado, por ello, algunos sectores exigen la pronta aprobación del Convenio sobre el Derecho al Desarrollo, esto es, que se recoja en un instrumento vinculante. En los últimos años, se ha avanzado en la formulación de un Proyecto de Convenio, pero todavía hoy, es un tema no resuelto.

## **Palabras Clave**

Derecho al Desarrollo, Declaración sobre el Derecho al Desarrollo, Proyecto de Convenio sobre el Derecho al Desarrollo, desigualdad, relaciones de poder, Naciones Unidas.

*La división internacional del trabajo consiste en que unos países se especializan en ganar y otros en perder. Nuestra comarca del mundo, que hoy llamamos América Latina, fue precoz: se especializó en perder desde los remotos tiempos en que los europeos del Renacimiento se abalanzaron a través del mar y le hundieron los dientes en la garganta. Pasaron los siglos y América Latina ... siguió trabajando de sirvienta. [...]*

*Para quienes conciben la historia como una competencia, el atraso y la miseria de América Latina no son otra cosa que el resultado de su fracaso. Perdimos; otros ganaron. Pero ocurre que quienes ganaron, ganaron gracias a que nosotros perdimos: la historia del subdesarrollo de América Latina íntegra, como se ha dicho, la historia del desarrollo del capitalismo mundial. Nuestra derrota estuvo siempre implícita en la victoria ajena; nuestra riqueza ha generado siempre nuestra pobreza para alimentar la prosperidad de otros.*

*Las venas abiertas de América Latina, Eduardo Galeano*

<b>Aurkibidea</b>	
<b>1. Sarrera</b>	<b>5</b>
<b>2. Garapenerako eskubidearen hastapenak</b>	<b>8</b>
2.1. Garapenerako eskubidearen jatorria	8
2.2. Garapenerako Eskubideari buruzko Adierazpena	10
2.2.1. Adierazpenaren Onarpena	10
2.2.2. Garapenerako Eskubidearen esanahia Adierazpenean	10
2.2.3. Adierazpenean jasotzen diren betebeharrak	14
2.2.4. Adierazpenaren balio juridikoa	18
2.3. Eskubidearen egikaritza eta eztabaidak	19
<b>3. Garapenerako Eskubideari buruzko azken aldiko bilakaera</b>	<b>20</b>
3.1. Garapenerako Eskubideari buruzko Hitzarmen Proiektu bateranzko lehenengo pausuak	20
3.2. Lehenengo Hitzarmen Proiektua	23
3.2.1. Garapenerako Eskubidearen esanahia Hitzarmen Proiektuan	24
3.2.2. Hitzarmen Proiektuan jasotzen diren betebeharrak	27
3.2.3. Hitzarmen Proiektuaren balio juridikoa eta egikaritza	32
3.2.4. Hitzarmen Proiektuaren onurak	33
3.3. Hitzarmen Proiektuaren Berrikusketak	34
3.3.1. Lehenengo Berrikusketak	34
3.3.2. Bigarren Berrikusketak	37
3.4. Hitzarmen Proiektuaren bideragarritasuna	38
<b>4. Ondorioak eta amaierako hausnarketa</b>	<b>40</b>
<b>Bibliografia</b>	<b>44</b>

## 1. Sarrera

Mundu mailan, herrien arteko eta pertsonon arteko desparekotasunak gero eta nabariagoak dira; aberatsak gero eta aberatsagoak, eta, bitartean, desberdinkeria gero eta handiagoa. Herrialde eta pertsona batzuek lortu duten ongizate maila ez da zoko orotara zabaldu. Eta askodira beren premiazko beharrak asetu ezinik jarraitzen dutenak. Are gehiago, munduko aberastasuna gero eta esku gutxiagotan pilatzen ari da.

Desberdinkeria baina, ez da halabeharrez loratu. Ez dago inolako determinismorik, edo zoririk desberdinkeriaren iturburuan. Izan ere, Mendebaldeko eta Hegoaldeko herrialdeen arteko desberdinkeria ulertzeko garai kolonialeraino atzera egin behar da, zeinan herrialde kolonialistak (mendebaldekoak), kolonizatuen (hegoaldekoak) lehengaien estraktibismoa burutuz “aberasten” ziren. Hortaz, Mendebaldeko herrialdeen “aberastasuna” arrazoi historikoei zor zaie, hain zuzen ere, bestelako herrialdeen espolioari, eta, beraz, herri horien “pobretzeari”. Geroztik, herrialde (neo)kolonialistek nagusitasun hori iraunarazten lagundu duen sistema oso bat sortu eta mantendu dute, hau da, sistema politiko, sozial, eta ekonomiko menderatzailea. Eta horrela, herrialdeen arteko botere harremanak mantendu dira, zeinan batzuek irabazi, eta beste batzuek galtzen duten.

Herrialdeen arteko desberdinkeria horri eusteko, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren sistema oso bat eraiki da, herrialde “aberastuek” “pobretuei” ematen dizkieten laguntzengatik bereizten dena. Izan ere, joan den mendearen erdialdetik aurrera, Harry S. Truman Estatu Batuetako presidente ohiaren inaugurazio-hitzaldiaren ondoren, herrialde “garatuek” herrialde “azpigaratuen” “garapenean” laguntzeko prest dauden dinamika bati ekin zitzaion. Bada, herrialde “garatuak”, zera da, historian zehar bestelako herrialdeen zapalkuntzari esker “aberastutako” herrialdeak (mendebaldekoak, edo, bestera esanda, (neo)kolonialistak), presidente estatubatuarren hitzaldiaz geroztik “herrialde azpigaratutzat” jotzen diren herrialdeen “garapena” lortzeko laguntza ekonomikoak emateko prest agertu dira. Horrela, Garapenerako Laguntza Ofizialaren bidez, hots, herrialde “garatuek” “azpigaratueta” bideratzen dituzten zenbatekoen bidez, azken herrialde horien “garapena” sustatu nahi izan dute (“garapena” aurrerapen ekonomiko eta industrial gisa ulertuta).

60ko hamarkadatik baina, Hegoaldeko herrialdeetako ahotsek bestelako eskakizunak mahigaineratu dituzte. Iparraldeko herrialdeetatik Hegoaldeko herrialdeetara ematen diren diru-laguntzetan oinarritzen den nazioarteko lankidetzaren aurrean, azken herrialde horien “azpigarapena” eragiten duen egitura aldatzeko bestekoa den nazioarteko lankidetzaren burutu dadila galdatu dute. Izan ere, “garapena” eta “azpigarapena” erabat loturik dauden fenomenoak dira, batzuen “garapena” besteen “azpigarapenari” esker ematen delako. Izan ere, “garapena-azpigarapena” loturarik gabeko fenomeno gisa aurkeztea gezurkeria hutsa litzateke. Horregatik, Hegoaldetik Iparraldeko herrialdeek eragindako “azpigarapenagatiko” erantzukizuna har dezatela eskatzen dute, bai eta egiturazko desberdinkeria iraunarazten duennazioarteko ordena aldatu dadila.

Momentu batean, eskakizun horiek guztiak, Garapenerako Eskubidearen aldeko aldarrikapenen itxura hartu zuten. Hegoaldeko herrialdeetatik beren garapen premiak aurrera

eraman ahal izateko, eta pertsona ooren ongizatea bermatu ahal izateko, Garapenerako Eskubidearen aldarrikapena bultzatu da, egiturazko desberdikeriei aurre egiteko balio behar duen tresna bezala ulertuta. Eta azkenean, eztabaida urte luzeen ondoren, 1986an Garapenerako Eskubideari buruzko Nazio Batuen Adierazpena onartzea lortu zen.

Ordutik, ordea, desberdinkeria egoera ez da bereziki hobetu, akaso, desberdinkeriak areagotu egin dira. Globalizazio neoliberalaren urrezko urteotan aberatsenen eta txiroenen desberdinkeria inoiz baino handiagoa bilakatu da. Gainera, munduko desberdinkeria Covid-19 pandemiarekin areagotu da, Pandemiaren eragin gogorrenak munduko pertsona txiroenak pairatu zituztelako. 2020an, muturreko pobrezia tasak gora egin zuen, eta 70 milioi pertsona baino gehiago erori ziren muturreko pobrezian; horrela, munduan muturreko pobrezian zeuden pertsonen zenbatekoa 700 milioikoa izan zen. Alde batetik, herrialde “pobreen” diru-sarrerak herrialde “aberatsenak” baino askoz gehiago gutxitu zirelako; eta bestetik, gizarte babeserako zerbitzuen egitura ahulagoak zirela agerian geratu zelako. Geroztik, herrialdeen arteko susperraldia desberdintsua izan da oso.<sup>1</sup>

Egun, Covid-19 pandemiaren eraginaren arrastoek munduko txoko guztietan nabaritzen jarraitzen direlarik, Ukrainiako gerrarekin krisi berri bat piztu da, eta elikagaien eta energiaren merkatuak hankaz gora jarri dira. Horrela, elikagaien segurtasun ezak eta malnutrizioaktxarrera egin dute “garapen bidean” dauden herrialdeetan, eta milioika pertsona pobrezia edo zailtasun ekonomikoko egoerara bultzatu ditu. Honako gerra aitzaki, Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundeak berarmatze itzela darama aurrera. Bitartean, aldaketa klimatikoak eraginbortitzak izaten jarraitzen ditu, bero-boladek, suteek, uholdeek eta urakanek egundoko kalte ekonomikoak eta krisi humanitarioak eragiten dituzte herrialde askotan.<sup>2</sup>

Horrek guztiak agerian uzten du ez dela Garapenerako Eskubideari buruzko Adierazpenaren egikaritza burutu. Adierazpenaren aldarrikapenaren hutsegite gisa uler liteke, Adierazpenaz geroztik ez zaielako desberdinkeriei behar bezala eutsi. Iritzi askoren aburuz, Garapenerako Eskubidearen egikaritzaren porrota, eskubidea jasotzen duen tresnaren izaerari zor zaio, hain zuzen, Adierazpenari berari, ez baita tresna juridiko loteslea. Horregatik, azken urteetan, Garapenerako Eskubidea denontzako egi bihurtzeko saiakeran, Garapenerako Eskubideari buruzko Hitzarmen bat onartzeko saikerak ematen ari dira, bada, garapenerako eskubidearen egikaritzea erraztu dezakeen Garapenerako Eskubideari buruzko Hitzarmenaren aldeko aldarrikapenak.

Hitzarmenaren aldarrikapenak mahai gainean jarri direnetik, Garapenerako Eskubidearengaita puri-purian dago berriro ere. Nazioarteko hitzarmen bat onartzeko eztabaidak irekita daude momentu honetan, batez ere, Nazio Batuetako organoetan, eta ikusteke dago Garapenerako Eskubideari buruzko Hitzarmenik onartzeko den ala ez. Gaurkotasun horren arrazoi ziurra dugu oraindik konponbiderik aurkitu ez izana; Garapenerako Eskubideari buruzko Hitzarmena onartzea ez baita gai baketsua.

---

<sup>1</sup> Munduko Bankua (2022) “La pobreza y la prosperidad compartida 2022: Corregir el rumbo” *Cuadernillo del panorama general*, Munduko Bankua, Washington, DC, xi. or.

<sup>2</sup> Nazio Batuek (2023) “World Economic Situation and prospects”, vii. or.

Gauzak horrela, lan honetan, Garapenerako Eskubidearen egungo egoeraren azterketa burutuko da, munduko desberdinkeriei aurre egiteko baliogarria izan daitekeen tresna hori ezagutze aldera. Zehatzago, lanaren objektua Garapenerako Eskubidea jaso duten tresnen azterketa izango da, hots, Garapenerako Eskubideari buruzko Adierazpena eta Garapenerako Eskubideari buruzko Hitzarmen Proiektuarena. Eta, horrekin batera, Garapenerako Eskubidea egikaritzetik dagoen ezagutzea. Izan ere, eskubide horren egikaritzea hein handi batean tresna horien izaera, edukia eta eztabaidengatik baldintzatuta dago.

Aipatutakoa lortzeko, gai horri argitasuna eman diezaioketen galdera zehatz batzuei erantzuna ematen saiatuko zaie. Honakoei, hain zuzen:

1. Garapenerako Eskubidearen gaur egungo formulatze juridikoarekin, ba al dago Garapenerako Eskubidea betetzerik? Ba al dago galdagarritasun aukerarik?;
2. Zein da Hitzarmen Proiektuaren eta dagoeneko dagoen Garapenerako Eskubidearen Ebazpenaren arteko aldea? Hitzarmenak eztabaidagunean egon diren gaiak argitzen al ditu?;
3. Zeintzuk lirateke Garapenerako Eskubidea Hitzarmen batean jasotzearen onurak? Ba al dago aukerarik Hitzarmen Proiektua onartzeko?

Galdera horien guztien azterketa egiteko, metodologia lehenengo eta bigarren mailako iturrien behaketa eta analisisian oinarrituko da. Lehenengo mailakoei dagokienez, Nazio Batuen tresna juridikoen azterketa egingo da, batez ere, Hitzarmen Proiektuaren atala aztertzeko, oraindik garatzen ari den kontua denez, ez dagoelako horren inguruko doktrina iritzi zabalik. Bestetik, bigarren mailako iturriek ere pisu handia izango dute lan honetan, Garapenerako Eskubideari buruzko literatura espezializatuaren berrikuspen bibliografikoaren bidez.

Lana garatzeko, sarrera honen ostean, bi atal nagusi bereiziko dira. Bigarren atalean, Garapenerako Eskubidearen hasierako bilakaera aztertuko da, hau da, Garapenerako Eskubidearen jatorria eta 1986ko Garapenerako Eskubideari buruzko Adierazpenaren nondik norakoak. Horrekin, gaur egunera arte ezagutu den Garapenerako Eskubidearen egoera zein izan den landuko da, Adierazpenaren edukiaren, balio juridikoaren eta ezaugarrien azterketaren bidez. Horren ostean, hirugarren atalean, azken urteotan Garapenerako Eskubidea Hitzarmen batean bildu nahi izan duten saiakerei erreparatuko zaie, eta batez ere, saiakera horietatik abiatuta martxan jarri den Garapenerako Eskubideari buruzko Hitzarmen Proiektuari. Hitzarmenaren onarpenak ekar ditzazkeen onurak, berritasunak eta garrantzia jarriko dira mahai gainean. Eta amaitzeko, ondorioen atalean, aztertutakoari buruzko ideia nagusiak eta emaitzak batuko dira.



## 2. Garapenerako eskubidearen hastapenak

### 2.1. Garapenerako eskubidearen jatorria

Garapena eta giza eskubideak fenomeno isolatuak bailiran eutsi zaizkie askotan; izan ere, batzuetan, aurkakoak balira ere ulertu dira.<sup>3</sup> Nazioarteko zenbait tresnatan, esaterako, Nazio Batuen Gutunean, garapenaren eta giza eskubideen baterako sustapena bultzatu den arren, ikuspegi horrek ez du harrera onik izan.<sup>4</sup> Hala ere, azken hamarkadetan garapena eta giza eskubideak uztartu nahi izan dituzten joerek bere lekua aurkitu dute.

Garapenaren eta giza eskubideen baterako sustapena bultzatu nahi izan duten joera nagusiak bitarikoak izan dira. Lehenengoa, “Garapena Giza Eskubideen Ikuspegitik” deritzona, ziur aski, ezagunena. Horren arabera, garapen prozesua giza eskubideen arauekin bat burutubeharko litzateke, eta, horretarako, garapenerako oztupo diren desberdinkeriak eta botere banaketa ezberdintsuak identifikatu eta zuzendu behar dira.<sup>5</sup> Bestalde, bigarren joerak, garapena bera giza eskubide gisa aitortu dadila bilatzen du.<sup>6</sup> Hori izango da, hain zuzen, hurrengo orrietan aztergai izango den kontua.

Zenbait egilek, garapenerako eskubidearen jatorria Nazio Batuen 1945eko Gutunean bertan kokatzen dute. Alde batetik, Gutunaren hitzaurrean, Nazio Batuetako herrialdeek “aurrerapen soziala bultzatu eta bizi-maila hobetuko” dutela jasotzen da. Bestetik, 1.3 artikulua, Nazio Batuen helburu gisa ezartzen du “nazioarteko lankidetzaz garapena lortzera bideratuko dela”. Eta gainera, nazioarteko lankidetzaz ari den IX Kapituluari, zehazki 55. artikuluan, Nazio Batuen ardura gisa zehazten du “bizi-maila altuagoen eta aurrerapen eta garapen neurrien sustapena”.<sup>7</sup>

Gehienetan, ordea, garapenerako eskubidearen jatorria, Senegaleko, Keba M’Baye juristaren adierazpenetan kokatzen da.<sup>8</sup> 60ko hamarkadan, herrialde askoren independentzia olatuaren garaian, “garapen bidean”<sup>9</sup> zeuden herrialdeak G-77an batu, eta beren garatzeko nahiaren aurkakoa zen orden ekonomiko mundiala mahaigaineratu zuten. Nazioarteko komunitateari “garapen bidean” zeuden herrialdeetako pertsonen bizi-maila hobetzeko bestekoa zen

<sup>3</sup> Ibhawoh, Bonny (2011) “The Right to Development: The Politics and Polemics of Power and Resistance” *Human Rights Quarterly*, 33 zk., 6. or.

<sup>4</sup> Teshome, Roman (2022) “The Draft Convention on the Right to Development: A New Dawn to the Recognition of the Right to Development as a Human Right?” *Human Rights Law Review*, 22 zk., 2. or.

<sup>5</sup> *Ibidem*, 8. or.

<sup>6</sup> Ibhawoh, Bonny, *op.cit.*, 10. or.

<sup>7</sup> Gómez Isa, Felipe (2003) “El derecho al desarrollo: entre la justicia y la solidaridad” Cuadernos Deusto de Derechos Humanos, 1. zk., Bilbo, 17. orr; eta Gómez Isa, Felipe (1999) “El derecho al desarrollo como derecho humano en el ámbito jurídico internacional” *Universidad de Deusto*, Bilbo.

<sup>8</sup> Gómez Isa, Felipe (2003), *op. cit.*, 19. or.; eta Ibhawoh, Bonny, *op.cit.*, 8. or.

<sup>9</sup> Honako terminoak erabiltzen diren bakoitzean: “garapen bidean dauden herrialdeak”, “herrialde garatuak”, “hirugarren munduko herrialdeak”, “herrialde pobreak”, “herrialde aberatsak”, bibliografian hala aipatzen delako izango da. Eta beraz, aurrerantzean, termino horiek komatxoaren artean agertuko dira. Kontuan izanda kontzeptuek kutsu politikoa dutela, “Hegoaldeetako herrialdeak”, “Iparraldeetako herrialdeak”, “herrialde aberastuak”, “herrialde pobretuak”, terminoak hobestuko lirarteke.

ingurugiroa ezar zezala eskatu zioten, bada, Nazioarteko Orden Ekonomiko Berria<sup>10</sup> (aurrerantzean NOEB) ezar zedila. 1967an, G-77aren foroetako batean, Keba M'Baye jurista “garapenerako eskubideaz” aritu zen lehenengo aldiz, honakoa adieraziz:<sup>11</sup>

“gure egitekoa, itun koloniala salatzea da eta eskubide berri batekin ordezkatzea. Garatutako herrialdeek eskubide indibidualak aldarrikatu dituzten era berean, geuk, hemen, Hirugarren Munduraren garapenerako eskubidea aldarrikatu behar dugu, ozen eta argi”.<sup>12</sup>

Horrela Nazioarteko Orden Ekonomiko Berriranzko aldarrikapenekin batera, garapenari buruzko zuzenbidea osatzen hasi zen.<sup>13</sup> Nazio Batuetan garapenaren eta giza eskubideen arteko harremanaz jabetzen hasiak ziren, horrela, 1968an, Teherango Giza Eskubideei buruzko Aldarrikapenean<sup>14</sup> “herrialde garatuen” eta “garapen bidean” zeuden herrialdeen arteko desberdintasuna giza eskubideak betetzeko oztopoa zirela onartu zen.<sup>15</sup>

Hala ere, oraindik zehatzago, garapenerako eskubidea “giza eskubide” moduan Keba M'Bayeren eskutik eratu zen, 1972an, Estrasburgoko Giza Eskubideei buruzko Institutuan, senegaldarrak emandako hitzaldian. Geroztik, gai hura Nazio Batuen Agendan sartu zen bete-betean.<sup>16</sup> Izan ere, 1977an Nazio Batuen Giza Eskubideen Komisioak garapenerako giza eskubidea ofizialki onartu zuen, eta Nazio Batuetako Ordezkari Nagusiari garapenerako giza eskubidearen nazioarteko egokitasunari buruzko azterketa egin zezala galdatu zitzaion. 1979an, berriro ere, garapena giza eskubide bezala aitortu zuen,<sup>17</sup> eta urte berean, Nazio Batuen Asanblada Nagusiak garapenerako eskubidea giza-eskubidea zenaren baieztapenaegin zuen 34/46 Adierazpenean.<sup>18</sup>

1981ean, gaur egun ezagutzen dugun Garapenaren Eskubidearen Adierazpeneranzko pausu garrantzitsua eman zen. Giza Eskubideen Komisioak garapenerako eskubidearen egitura sendoago bat eraikitzeke eta adierazpen proiektu bat lantzeko, Gobernu Adituen Lan Talde bat osatu zuen. Eta horrela, eztabaida luzeen ostean, jarraian aztertuko den moduan, 1986ko Garapenerako Eskubidearen Adierazpena onartu zen Nazio Batuetan (aurrerantzean, NB).<sup>19</sup>

---

<sup>10</sup> Nazioarteko Orden Ekonomiko Berriranzko eskakizuna independentzia lortu berri zuten herrialdeengandik sortu zen, independentzia politikoak ez baitzuen independentzia ekonomikorik ekarri berekin. Planteamendu horren arabera, nazioarteko orden ekonomiko eta soziala Mendebaldeko herrialdeen nagusitasunean, inperialismoan eta neokolonialismoan oinarritzen da, eta horrek munduko desberdinkeriak iraunarazten ditu. Horrela, NOEB mundu mailako orden ekonomiko eta politikoa aldatzeko asmoarekin planteatzen da, desberdinkeriak menerapen kolonialpean egon diren herrialdeen asmoen aurkakoak direlako. Beraz, nazioarteko orden berri bidezkoagoa ezarri dadila galdatzen dute. Hemen ikusita: Kirchmeier, Felix (2006) “The Right to Development – where do we stand?” *Friedrich Eber Stiftung*, 3. or.

<sup>11</sup> Teshome, Roman, *op. cit.*, 3. or.

<sup>12</sup> *Ibidem*.

<sup>13</sup> Gómez Isa, Felipe (2003), *op. cit.*, 18. or.

<sup>14</sup> Nazio Batuak “Proclamación de Teherán” (1968ko maiatzaren 13koa), 12. paragrafoa.

<sup>15</sup> Gómez Isa, Felipe (2003), *op. cit.*, 19. or.

<sup>16</sup> Teshome, Roman, *op.cit.*, 3. or.

<sup>17</sup> Gómez Isa, Felipe (2003), *op. cit.*, 19. or.

<sup>18</sup> *Ibidem*; eta Teshome, Roman, *op.cit.*, 6. or.

<sup>19</sup> Gómez Isa, Felipe (2003), *op. cit.*, 20. or.

## 2.2. Garapenerako Eskubideari buruzko Adierazpena

### 2.2.1. Adierazpenaren Onarpena

Giza Eskubideen Komisioak eraturako Gobernu Adituen Lan Taldearen baitan eztabaida luzeak eman ostean, Asanblada Nagusiari Garapenerako Eskubideari buruzko Adierazpenaren proiektu bat aurkeztu zitzaion. Horrekin, 1986ko abenduaren 4an, Nazio Batuen Asanblada Nagusiak, 41/128 Ebazpena dela medio, Garapenerako Eskubidearen Adierazpena onartu zuen (aurrerantzean, Adierazpena), gaur egunera arte mundu mailan garapenaren eskubideari buruzko tresna juridiko nagusia dena.<sup>20</sup>

Adierazpen horri buruzko eztabaidak ez ziren bat ere baketsuak izan. Tresna horren onarpenerako bozketan, eztabaidetan emandako desadostasunak agerian geratu ziren. Ebazpena aldeko 146 botorekin onartu zen. Estatu Batuak adierazpenaren aurka bozkatu zuten, eta mendebaldeko zortzi herrialdek<sup>21</sup> abstentzioa bozkatu zuten.<sup>22</sup> Herrialdeek erakutsitako jarrera kontrajarriak zirela eta, zehaztasun handirik gabeko tresna bat onartu zen, eta horrek geroko eztabaida asko sortu ditu eskubide horren edukia inguruan.<sup>23</sup>

Hala ere, Garapenerako Eskubidearen Adierazpenaren bozketaz geroztik, garapenerako eskubideak onarpen zabalagoa jaso duela esaten ohi da. Orduetik, garapenerako eskubidea barne hartu duten bestelako adierazpenak onetsi dira, estatu askozaz gehiagoren “babesarekin” (Garapenerako Eskubidearen Adierazpenean ezezko botoa edo abstentzioa bozkatutako estatuak barne). Esaterako, Vienako 1993ko Giza Eskubideei buruzko Konferentzian garapenerako eskubideari berebiziko garrantzia eman zitzaion, eta horrek berrespen sendoa jaso zuen.<sup>24</sup> Konferentzia horren adierazpena, 171 estatuk aho batez onartu zuten. Dokumentu horretan, alde batetik, demokrazia, garapena eta giza eskubideen errespetuaren arteko harremana azpimarratu (5. paragrafoa), eta, bestetik, garapenerako eskubidea, eskubide unibertsal eta besterenezin gisa, eta oinarritzko giza eskubide bezala berretsi zen (6. paragrafoa).<sup>25</sup>

Gerora, beste zenbait tresnatan ere berretsi da, batik bat, Kairoko Biztanleria eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzian, 1994an; Kopenhageko Garapen Sozialari buruzko Gailurrean, 1995ean; edo <sup>26</sup> Agenda, oraintsuago, 2030eko Ebazpenean,<sup>27</sup> 2015ean.

### 2.2.2. Garapenerako Eskubidearen esanahia Adierazpenean

Adierazpenari jarraiki, Garapenerako Eskubidea pertsona ororen garapenean parte hartzeko gaitasuna sustatu eta babestean datza, garapenaren prozesuan lagunduz eta hura gozatuz,

<sup>20</sup> *Ibidem*.

<sup>21</sup> Danimarka, Alemaniako Errepublika Federala, Erresuma Batua, Finlandia, Islandia, Suedia, Japonia, eta Israel.

<sup>22</sup> Gómez Isa, Felipe (2003), *op. cit.*, 20. or.

<sup>23</sup> Teshome, Roman, *op. cit.*, 6. or.

<sup>24</sup> Gómez Isa, Felipe (2003), *op. cit.*, 21. or.; eta Teshome, Roman, *op. cit.*, 4. or.

<sup>25</sup> Nazio Batuak, Giza Eskubideei buruzko Mundu Konferentzia “Declaración Final de la Conferencia Mundial de Derechos Humanos”, A/CONF.157/ DC/1/Add.1 (1993ko ekainaren 24koa).

<sup>26</sup> Gómez Isa, Felipe (2003), *op. cit.*, 21. or.

<sup>27</sup> Nazio Batuak, Asanblada Nagusia “Transformar nuestro mundo: la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible” A/RES/70/1 (2015eko urriaren 21koa).

alderdi ekonomiko, sozial, kultural eta politikoa aintzat hartuz.<sup>28</sup> Adierazpenaren 1.1 artikulua honela esan du:

“Garapenerako eskubidea giza eskubide besterenezina da, zeinari jarraiki, pertsona oro eta herri oro bere giza eskubideak eta oinarrizko askatasuna gozatzeko aproposa den garapen ekonomiko, sozial, kultural eta politikoan parte har dezakeen, garapenean parte hartuz eta garapenaz gozatuz.”

Aurreko hitz horietan, alde batetik, argi geratzen da, garapena giza eskubide besterenezin gisa zehazten dela. Eta bestetik, xedapen horretatik abiatuta, garapenerako eskubideari buruzko zenbait elementu azpimarra daitezke, jarraian aztertuko direnak.

Lehen, Garapenerako Eskubidearen dimentsio indibiduala eta kolektiboa ondorioztatzen dira. Adierazpenaren 1. artikulua arabera, “*persona oro eta herri orok*” dute garapenerako eskubidea. Horrekin, nazioarteko beste tresnetan gailentzen den giza-eskubideen ikuspegi indibidualistatik bereizten da.<sup>29</sup>

Hori izan zen, hain zuzen ere, adierazpena eraikitzeko prozesuan kontueztatzen dena.<sup>30</sup> Iritzi hedatuak eskubidearen dimentsio bikoitza defendatzen du. Ikuskera horretatik, dimentsio kolektiboa onartzea, indibiduala onartzea bezain garrantzitsua da, zeren giza-eskubide indibidualak hirugarren munduko “azpi-garapena” iraunarazten duen nazioarteko egituraren barnebilduta daude. Zenbait estatuk ordea, batez ere mendebaldeko estatuek, giza eskubideen dimentsio kolektiboaren aurkako jarrera erakutsi zuten.<sup>31</sup>

Bigarrena, Adierazpenaren baitan jasotzen den “garapena”-ren kontzeptuari dagokiona litzateke. Garapena denboran zehar aldatzen joan den kontzeptua izan da. Gaur egun ere, ez dago kontzeptuaren definizio bakar eta unibertsalik. Bere hastapenetan, garapena hazkunde ekonomikoarekin lotzen zen bakarrik. Gerora, garapenaren ulerkera zabalagoa osatu da, besteak beste, ingurumenari arreta berezia jartzen diona, hurrengo belaunaldiekin lotuta dagoela defendatzen duena, edota garapena pertsonen giza-ongizatearen arabera neurtzen duena, pertsonen gaitasunen eta aukeratzeko askatasunaren arabera. Horretatik, garrantzitsua da Garapenerako Eskubideari buruzko Adierazpen horretan garapena nola ulertzen den ezagutzea, garapenaren inguruko ikuspegiaren arabera, garapena burutzeko ahaleginak ezberdinak izango baitira.<sup>32</sup>

Zenbait egileren aburuz, Adierazpenak aurrerapen ekonomikoan oinarritzen den garapenaren kontzeptu tradizionala gainditzen du. Izan ere, Adierazpenean jasotzen denari jarraiki, garapena pertsonaren eta herriaren ongizatearen etengabeko hobekuntza datza, dimentsio

<sup>28</sup> Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Mandataria (2016) “Frequently Asked Questions on the Right to Development” *Nazio Batuak*, 8. or.

<sup>29</sup> Ibhawoh, Bonny, *op. cit.*, 10. orr; eta Mutua, Makau (2007) “Standard Setting in Human Rights: Critique and Prognosis” *Human Rights Quarterly*, 29., 577. or.

<sup>30</sup> Teshome, Roman, *op.cit.*, 7. or.

<sup>31</sup> Gómez Isa, Felipe (2003), *op. cit.*, 44. or.

<sup>32</sup> Ruiz Morato, Natalia (2016) “Estudio histórico-jurídico del derecho al desarrollo y su potencialidad en los órdenes jurídicos nacionales” *Pensamiento Jurídico*, 43. zk., 9. or.

ekonomiko, soziala, kulturala, eta politikoari so eginez.<sup>33</sup> Honako ideia aurretik aipatutako 1.1 artikulutik, bai eta Adierazpenaren hitzaurretik ere ondorioztatzen da, hain zuzen. Adierazpenaren hitzaurreak honela dio:

“Garapena biztanleria eta norbanako guztien ongizatearen hobekuntza lortunahi duen prozesu global ekonomiko, soziala, kulturala eta politikoa dela aintzatesten da, garapenean, eta hortatik eratortzen diren onuren banaketa bidezkoan, parte-hartze aktibo, aske eta nabarmena dutelarik”.

Hortaz, Garapenerako Eskubidearen Adierazpenak, garapen prozesua integrala izan behar duela nabarmentzen du, zeinak alderdi ekonomiko, sozial, kultural eta politikoa kontuan hartzen dituen.<sup>34</sup> Prozesua bera integrala izan dadin, Adierazpenaren arabera, garapen prozesua lagunduko duten bestelako alderdiei eutsi behar zaizkie, esaterako, bakeari eta armagabetzeari. Adierazpenaren arabera, garapena lortzeko bakea eta armagabetzea gauzatu behar dira. Garapenaren ikuspegi holistikoa horri so eginez, Adierazpenean ezartzen da, estatuek bakea bultzatzea eta mantentzea eta desarmatzerantzko bidea hartzeak garapenagauzatzea lagunduko lukeela (7. art.). Batez ere, “armagabetzetik lortutako baliabideak ‘garapen bidean’ dauden herrialdeei zuzentzen” badira. Hala ere, xedapen horren onarpena eztabaidatsua izan zen oso, eta Estatu Batuen ezezko botoa eta beste batzuen absentsioa eragin zuen.<sup>35</sup>

Bestetik, garapenaren erdigunean gizakia kokatzen da, aurreko xedapenetan islatu den moduan, garapenak norbanakoen ongizatea hobetzeko izan behar du. Horrez gain, Adierazpenaren 2.1 artikuluan ideia hori indartzen da.

“Gizakia garapenaren subjektu nagusia da, eta garapenaren parte hartzaile aktiboa eta onuraduna izan behar du”.

Formulazio horrek, garapenaren ikuskeran eragin handia duen aurrerapausoa da, pertsona garapen prozesu ororen azken helburutzat ezartzen delako, eta beren parte-hartzea kontuan hartzen delako. Hau da, ez dago garapena lortzerik gizakion oinarritzko premiei erantzunik eman gabe. Finean, “giza-garapen”-eranzko pausoa da.<sup>36</sup>

Baina ez hori bakarrik, gizakia bera, garapenaren subjektua izateaz gain, garapen prozesuaren parte hartzaile aktiboa izan behar du. Garapenerako Eskubideari buruzko Adierazpenean, herritarren parte hartzeak garapenerako eskubidearen egikaritzan duen garrantzia jasotzen da.<sup>37</sup> Izan ere, Adierazpenaren 8.2 artikulua honela dio:

“Garapena lortzeko eta giza eskubideak egi bihurtzeko, estatuek herritarren parte hartzea sustatu behar dute alor guztietan”.

<sup>33</sup> Schrijver, Nico (2020) “A new Convention on the human right to development: Putting the cart before the horse?” *Netherlands Quarterly of Human Rights*, 38:2 zk., 5. or.

<sup>34</sup> Alfarargi, Saad, Garapenerako Eskubideari buruzko Nazio Batuen Errelatore Berezia (2018) “Relator Especial de las Naciones Unidas sobre el Derecho al Desarrollo. Una introducción al mandato” *Nazio Batuak*, 5. or.

<sup>35</sup> Gómez Isa, Felipe (2003), *op. cit.*, 45. or.

<sup>36</sup> *Ibidem*.

<sup>37</sup> *Ibidem*, 46. or.

Horrek garapen parte-hartzaile bateranzko aurrerapausoa suposatzen du, zera da, funtsean, garapen prozesuan beran sartuta dauden pertsonen parte hartzea aintzat hartzen duen garapena.<sup>38</sup>

Edonola ere, aurrerapausutzat jo bada ere, alderdi ekonomikoaren ikuskera soilaz haratago joaten delako, alderdi ekologistarengandik zenbait kritika jaso ditu, Garapenerako Eskubideari buruzko Adierazpenak ez baitzuen (dagoeneko garatze bidean zeuden) alderdi ekologikoa edo jasangarritasuna kontuan hartu. Adierazpenean, ez zen garapen jasangarriari buruzko tutik ere esan. Bada, tresna horretan garapenaren ikuspegi antropozentrikoa lehenetsizen.<sup>39</sup>

Hala ere, beranduago, “garapen jasangarria” Garapenerako Eskubidearen funtsezko elementu batean bihurtu dela defendatu dute zenbait egilek.<sup>40</sup> 1992ko Ingurumen eta Garapenari buruzko Rioko Adierazpenak, garapenerako eskubidea barne hartu zuen. Rioko Adierazpen horretan garapenerako eskubidea ingurumenaren babesarekin estuki lotuta agertu zen, horren arabera, garapenerako eskubidea ekosistema globalari kalterik egin gabe burutu behar baitzen.<sup>41</sup> Adierazpenaren 3. oinarrian jaso zen, hain zuzen,

“garapenerako eskubidea, egungo eta etorkizuneko belaunaldien garapen eta ingurumen beharrei erantzuna emanez egikaritu behar dela”.<sup>42</sup>

Azkenik, Garapenerako Eskubidearen egikaritzak, gainerako giza eskubide guztien errespetua galdatzen duenez, zenbait egilek sintesi-eskubidetzat jo dute, hau da, gainerako giza eskubideak bere baitan hartzen dituen eskubide gisa. Bada, bere azken helburua giza eskubideen osotasuna sustatzea eta aplikatzea litzateke, nazioartean zein eremu lokalean. Garapenerako eskubideak muinean giza eskubide guztien zatiezintasuna eta elkarrekikotasuna sendotu eta sakondu nahi du. Horrela, adierazpenean aitortzen da ezinezkoa dela garapena egi bihurtzea giza eskubideen errespeturik gabe.<sup>43</sup> Adierazpenean behin baino gehiagotan aipatzen da giza eskubideen urraketak garapenerako eskubidearen egikaritzerako oztopoa direla, eta estatuek horren inguruko neurriak hartu behar dituztela (hitzaurrea, 5. art., 6. art.).<sup>44</sup> Gai horren inguruan baina, Nazio Batuen Giza Eskubideei buruzko Goi Mandatariak argibide bat eman zuen, zeinari jarraiki Garapenerako Eskubideaz dagon gainerako eskubideen gainetik, ez da, inolaz ere “supereskubide” bat, gainontzeko eskubideen maila berean dagoena baizik. Hala ere, egia da, garapenerako eskubidea egikaritzeko, gainerako giza eskubideen errespetua galdatzen dela.<sup>45</sup>

---

<sup>38</sup> *Ibidem*.

<sup>39</sup> Teshome, Roman, *op.cit.*, 11. or.

<sup>40</sup> Gómez Isa, Felipe (2003), *op. cit.*, 48. or.

<sup>41</sup> *Ibidem*, 20. or.

<sup>42</sup> Nazio Batuak, Asanblada Nagusia “Rio Declaration on Environment and Development” A/CONF.151/26 (Vol. I) (1992ko abuztuaren 12koa).

<sup>43</sup> Gómez Isa, Felipe (2003), *op. cit.*, 44. or.

<sup>44</sup> *Ibidem*.

<sup>45</sup> Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Mandataria (2016) “Frequently Asked Questions on the Right to Development” *Nazio Batuak*, 2. or.

Horren harira, pentsa liteke, Adierazpenak, emakumeen eskubideetan arreta berezia jar zezakeela, jakina baita, garapen prozesuek eragin bereziak izan dituztela emakume eta gizonengan, eta bereziki, emakumeen eskubideak urratu direla. Izan ere, pobreziaren eragin bortitzenak emakumeek pairatzen dituzte, horrela, “pobreziaren feminizazioaz” aritzen gara.<sup>46</sup> Beste modu batean esanda, garapen prozesuak, denbora luzez, emakumeak alde batera utziz gauzatu dira. Adierazpenean ordea, ez zaie emakumeen kontuari arreta askorik jartzen. Emakumeen inguruko aipu bakarra jasotzen da, emakumeen parte hartzeari dagokiona, hain zuzen. Adierazpenari jarraiki, emakumeen parte hartzea sustatzeko neurriak hartu behar dira (8.1 art.). Hortaz, berriro ere, emakumeen gaia zokoratuta gelditzen da oso. Garai hartan, Garapenerako Eskubidearen egikaritza ahaleginek ez zuten genero ikuspegia barne hartu. Ezinbestekoa litzateke zera kontuan hartzea, genero estereotipoek eta egitura patriarkalek emakume eta neskatuen garapena oztopatzen dutelako.<sup>47</sup>

### 2.2.3. Adierazpenean jasotzen diren betebeharrak

Adierazpenean Garapenerako Eskubidea egikaritzeko betebeharrak ezartzerako orduan, estatuen jarrerak kontrajarriak izan ziren oso. Eztabaida sutsua eman zen kontu horren inguruan: norengan zetzan eskubidea egikaritzeko betebeharra (estatuengan, nazioarteko komunitatearengan, norbanakoengan)? Eta betebeharrak horiek, zein esparrutan egikaritu beharko lirateke (estatu barnean, nazioartean)? Galdera horiei erantzuna ematen saiatuko zaiejarraian.

- **Estatuen betebeharrak**

Adierazpenean, estatuen betebeharrak gailendu ziren, eta, batez ere, beren mugen barnean. Estatuak pertsona oroengatik ongizatea bermatzeko garapen politikak egiteko eskubidea eta betebeharra dute beren lurraldean (2.3 art.); alde batetik, estatuak eskubide zibil eta politikoak, edota eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen egikaritza eragozten duten oztopoak kudeatu behar dituzte (6.3 art.); bestetik, gainerako eskubideen urraketa masiboak kontra aritu behar dira (5. art.); eta, azkenik, garapenerako onuragarriak diren barne neurriak estatuak hartu behar dituzte (8.1 art.).<sup>48</sup>

Aldi berean, Adierazpenean, estatuen nazioarteko betebeharrak buruz aritzen diren zenbait neurri jasotzen dira.<sup>49</sup> Besteak beste, estatuak garapenerako onuragarria den nazioarteko ingurua sustatu behar dutela (art. 3.1); garapena eta NOEB bultzatzen duen lankidetzaren burutu behar dutela (art. 3.3);<sup>50</sup> eta eskubidearen egikaritzarako neurriak esparru nazional eta nazioartekoan burutu behar dituztela (10. art.). Horrez gain, “garapen bidean” dauden herrialdeen garapen arinagoa laguntzeko, nazioarteko lankidetzaren bultzatu behar dute (4.2 art.). Eta hori, garapenak mesedegarria zaion ingurune bat behar duenaren ideian oinarritzen da.<sup>51</sup> Baina kontu horiek guztiak ikusmiran egon dira, Adierazpenak estatuen nazioarteko eta

<sup>46</sup> Gómez Isa, Felipe (2003), *op. cit.*, 47. or.; eta Gómez Isa, Felipe (1999), *op. cit.*, 208. or.

<sup>47</sup> Alfarargi, Saad, *op. cit.*, 10. or.

<sup>48</sup> Teshome, Roman, *op. cit.*, 13. or.; eta Gómez Isa, Felipe (2003), *op. cit.*, 51. or.

<sup>49</sup> Ibhawoh, Bonny, *op. cit.*, 11. or.

<sup>50</sup> Gómez Isa, Felipe (2003), *op. cit.*, 45. or.

<sup>51</sup> Teshome, Roman, *op. cit.*, 11. or.; eta Gómez Isa, Felipe (2003), *op. cit.*, 51-55. orr.

lankidetzeta betebeharrak oso era lausoan jasotzen dituelako. Izan ere, ez dira betebeharrak egikaritzeko moduei buruzko hitzik zehazten, ez eta nazioarteko lankidetzak hartu behar duen itxurari buruz ere. Nazioarteko lankidetzeta estatuen borondate politikoan eta harreman diplomatikoetan bakarrik euskarritzen da.<sup>52</sup>

Horrez gain, estatuak kolektiboan aritzen direnean (adibidez, nazioarteko erakunde bitartez), garapen politika egokiak burutu behar dituztela aipatzen da (4.1. art.).<sup>53</sup> Horrekin, nazioarteko komunitatearen eginbeharrak estatuei dagozkiela jasotzen da. Hau da, nazioarteko komunitateak berez, ez ditu garapenerako eskubidea egikaritzeko betebeharrak. Baina nazioarteko komunitatean, estatuak parte hartzen duten heinean, estatuen eginbeharrak direla medio, garapenerako eskubidea burutu behar da. Segiduan datozen lerroetan argiago ikusten da honako kontua.

- **Nazioarteko erakunde bitartez**

Esan bezala, estatuak kolektiboki aritzen direnean garapenerako eskubidea gauzatu behar dutenez (4.1. art.), nolabait, nazioarteko erakundeek garapenerako eskubidearen egikaritzaren eginbeharra bere gain hartu behar dutela aintzat hartzen da. Faltan botatzen da, baina, nazioarteko erakunde bitartez zehatzagoak jaso ez izana, batez ere, garapenerako eskubidearen egikaritzan duten eragina kontuan hartuta.

Nazioarteko erakunde bitartez eragin itzela izan dezakete garapenerako eskubidearen egikaritzan. Esaterako, Nazioarteko Diru Funtsak (NDF), estatuen ekonomiak baldintzatzen ditu bere gomendio eta mailegu bitartez. Izan ere, estatuak Nazioarteko Diru Funtsari maileguak eskatzeagatik gehiegizko errekareruak ordaindu behar dizkiote bueltan. Errekargu horiek ordaintzeak, kasu askotan, garapenerako eskubidea egikari dezaketan azpiegiturak eta zerbitzu publikoak eskaini ahal izatea galarazten du. Beraz, mailegu zerbitzu horrek, estatuen garapen estrategiak aurrera eramateko ahalmena ahultzen du, bada, garapenerako eskubidea urratzen du. Gainera, zerbitzu publikoen eskaintza faltagatik egoera zaurgarrienean dauden pertsonen eskubideak urratzen dira, bereziki emakume eta neskatuena. Eta hori guztia, oso agerian izan da Covid-19aren pandemia garaian, zein zenbait estatuak pandemiaren eraginei aurre egiteko zailtasun handiagoak izan dituzten errekareru horien ordainketagatik, besteak beste.<sup>54</sup>

Gauzak horrela, zentzuzkoa litzateke Garapenerako Eskubidearen Adierazpenak nazioarteko erakunde bitartez berariaz jasotzea. Ordea, ezin daiteke halakorik esan. Egia da, Adierazpenean honakoa jasotzen dela: “estatuak kolektiboki aritzen direnean garapenerako eskubidea gauzatu behar dute” (4.1. art.). Beraz, estatuak Nazioarteko Diru Funtsan aritzen direnean ere, ez dute giza eskubideen errespetuaz aritzeko betebeharra galtzen. Era berean, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturei buruzko Komiteak 2016an gogorarazi zuen, estatuak nazioarteko erakunde bitartez aritzen direnean ezin dituztela beren giza

<sup>52</sup> Teshome, Roman, *op. cit.*, 10-11. orr.

<sup>53</sup> Gómez Isa, Felipe (2003), *op. cit.*, 56. or.

<sup>54</sup> Bohoslavsky, Juan Pablo; Cantamutto, Francisco; Clérico, Laura (2022) “IMF’s Surcharges as a Threat to the Right to Development” *Society for International Development*, 65. zk., 196. or.



eskubideekiko betebeharrak alde batera utzi.<sup>55</sup> Hau da, estatuek, nazioarteko erakundeen egintzak giza eskubideen errespetuaz burutzen dutela ziurtatu behar dute. Horrela, berriro ere, estatuen eginbeharrak erdigunean jartzen dira.

Kontu horiei bestelako bideetak heldu ahal zaie. Esaterako, NDFren errekaragukherrialdeen garapen politika ahalmena galaraztea, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaliburuzko Hitzarmenaren aurkakoa da. Horren arabera (2. art), estatuek ahal beste diru eskubide horien egikaritzara bideratu behar dute, eta errekaraguen ordainketak, zaintza-, osasun-, eta hezkuntza-zerbitzuak ordaintzea eragozten du, beraz, hitzarmena urratzen du.<sup>56</sup>

Bestalde, adierazpenaz geroztik, nazioarteko erakundeen betebeharrak zehazki aipatu dituzten adierazpenak egin dira. Esaterako, Nazioarteko Diru Funtsak giza eskubideekiko erantzukizuna duela ukatu du, garapenerako eskubidea barne. Ez duenez Giza Eskubideen Adierazpena onartu, ez du ulertzen bere egintzak giza eskubideak egikaritzera bideratu behar direnik.<sup>57</sup> Horren aurrean Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturali buruzko Komiteak, argieta garbi aipatu du NDFk eta Munduko Bankuak giza eskubideen inguruko eginbeharrak dituztela.<sup>58</sup> Komitearen arabera, nahiz eta erakundeek bere egintzak giza eskubideen alde jokatu behar dutela ukatu duten, estatu kideek eskuordetu dizkieten ahalmenekin aritzen direnez, ezin dituzte giza eskubideak urratzen dituzten egintzarik burutu.<sup>59</sup>

Hitz gutxitan, Garapenerako Eskubideari buruzko Adierazpenak estatuek nazioarteko erakundeen bidez aritzen direnean giza eskubideekiko eginbeharrak mantentzen dituztela jasotzen du. Ez ditu ostera, nazioarteko erakundeen eginbeharrak jasotzen.

- **Norbanakoen betebeharrak**

Mendebaldean arreta gutxi jarri zaio norbanakoen eskubideen eta horiei dagozkien eginbeharren harremanari. Beste esparru batzuetan ordea, norbanakoen betebeharrei garrantzi handiagoa eman zaio, esaterako, Herrien eta Giza Eskubideen Afrikako Gutunean. Hala ere, Adierazpenean norbanakoei leku bat gorde zaie, eta, horren arabera, norbanakoak berak badu eskubidearen egikaritzan zeregiterik. Tresna horri jarraiki, gizaki guztiek dute era individual edo kolektiboan garapenerako ardura, eta, horretarako, orden ekonomiko, politiko eta soziala sustatu eta bermatu behar dute (2.2 art.).<sup>60</sup> Bada, norbanakoek garapenerako eskubidea egikaritzeko egintzak burutu beharko dituzte.

Adierazpenak ez du zehazten norbanakoen eginbehar horiek zeintzuk izan behar diren. Hala ere, zenbait egilek gai horri buruz idatzi dute. Ildo honetan, mahaigaineratzen ohi da “herrialde garatuetako” herritarren kontsumo erdua. Garapenerako eskubideak kontsumo hori berrikustea galdatuko luke, “garapen bidean” dauden herritarrenak baino askoz altuagoa

<sup>55</sup> Nazio Batuak, Kontseilu Ekonomiko eta Soziala “Deuda pública, medidas de austeridad y Pacto Internacional de Derechos Económicos, Sociales y Culturales”, E/C.12/2016/1 (2016ko uztailearen 22koa), 9. paragrafoa.

<sup>56</sup> Bohoslavsky, Juan Pablo, et al., *op. cit.*, 198. or.

<sup>57</sup> Nazioarteko Diru Funtsa (2017) Letter from IMF’s Special Representative to the United Nations addressing the UN Independent Expert on Debt and Human Rights, 27 July. Hemen ikusita: Bohoslavsky, Juan Pablo, et al., *op. cit.*, 1. or.

<sup>58</sup> Bohoslavsky, Juan Pablo, et al., *op. cit.*, 1. or.

<sup>59</sup> Nazio Batuak “Deuda pública...”, E/C.12/2016/1, *op. cit.*, 8. paragrafoa.

<sup>60</sup> Gómez Isa, Felipe (2003), *op. cit.*, 59. or.

delako, eta ez datorrelako Planetaren egoera ekologikoarekin bat.<sup>61</sup> 1979ko Nazio Batuen Idazkari Orokorraren Txostenean jada kontu horri eutsi zitzaion. Horren arabera, garapenerako eskubidearen egikaritzarako munduko baliabide mugatuak erabilpen arduratsua egin behar da, egoera hobean dauden horiek, Planetaren egoera ekologikoarekin bat datorren bizimodua eraman behako lukete.<sup>62</sup>

Mahai gainean jarri den beste aukera bat, bizitza duina duten horiek beren soldataren zenbateko bat garapenari zuzentzea litzateke, eta horrela, pertsona oro garapenaren agentea litzateke. Esaterako, bakoitzak lansariaren %0,7a garapen proiektuetara zuzentzea.<sup>63</sup>

- **Sektore pribatuaren betebeharrak**

Garapenerako Eskubideari buruzko Adierazpenak ez du enpresa transnazionaleri buruzko tutik ere esaten. Hori dela eta, osagabetzat jo da. Adierazpenaren aurretiko proiektuetan, enpresa transnazionalen betebeharrak zehazki jaso ziren. Hain zuzen, Aljeria, Kuba, Frantzia, India eta Jugoslaviak aurkeztutako proiektuan honakoa jaso zen:

“enpresa askatasunaren printzipioak ezin ditu enpresa transnazionalen egintza bidegabeak justifikatu, garapen bidean dauden herrialdeetako baliabideak hartzen dituztenean, herrialde hauen subiranotasuna kaltetzen dutenean...”<sup>64</sup>

Gabezia hori, geroko arau batekin gainditu dela esan ohi da, hau da, Enpresa transnazionalak eta beste merkataritza enpresa batzuek giza eskubideen esparruan dituzten erantzukizunei buruzko arauan, zeinak berariaz jasotzen duen sektore pribatuak garapenerako eskubidearen egikaritza duen eginbeharra.<sup>65</sup>

Kontu hori, ez da gai hutsala. Enpresa transnazionalak gero eta pisu handiagoa dute nazioarteko ekonomia globalizatuan; izan ere, giza eskubideen, eta batez ere, garapenerako eskubidearen gozamena eragiten duten baldintzetan eragin itzela dute. 60ko hamarkadaren hasieran ikuspegi nagusiaren arabera, enpresak herrialdeen garapenerako mesedegarriak zirenos. Hamarkada horretan zehar baina, independentzia lortu berri zuten herrialdeek honakoa salatu zuten: enpresa transnazionalak beren independentzia osorako oztipoa zirela. “Neokolonialismoaz” hitz egiten hasi zen, kolonia ohiek independentzia politikoa lortu arren, menderatze ekonomikoa bere horretan zirauela salatzeke. Gaur egun, ukalezina da enpresa transnazionalak boterea eta munduko garapena bideratzeko duten ahalmena. Gainera, munduko politiken estandarizazioa bultzatzen dute, merkatuen liberalizazio eta ekonomien

---

<sup>61</sup> *Ibidem*.

<sup>62</sup> Nazio Batuek, Kontseilu Ekonomiko eta Soziala “Las dimensiones internacionales del derecho al desarrollo como derecho humano en relación con otros derechos humanos basados en la cooperación internacional, incluido el derecho a la paz, teniendo en cuenta las exigencias del nuevo orden económico internacional y las necesidades humanas fundamentales”, E/CN.4/1334, (1978ko abenduaren 11koa), 59. or.

<sup>63</sup> Gómez Isa, Felipe (2003), *op. cit.*, 59. or.

<sup>64</sup> Nazio Batuek, Kontseilu Ekonomiko eta Soziala “Informe del grupo de trabajo de expertos gubernamentales sobre el derecho al desarrollo” E/CN.4/1983/11 (1982ko abenduaren 9koa), 4. eranskina, hitzaurrea, 12. paragrafoa.

<sup>65</sup> Gómez Isa, Felipe (2006) “Empresas transnacionales y derechos humanos: desarrollos recientes” *Lan harremanak: Revista de relaciones laborales* 1 zk., 64. or.

dearautzea sustatuz. Horrela, estatuen subiranotasuna kolokan jartzen dute, eta, horrek noski, garapenerako eskubidearen egikaritzan eragin dezake.<sup>66</sup>

Are gehiago, testuinguru neoliberal batean, Garapenerako Eskubidearen egikaritzak ez du inolako bideragarritasunik. Merkataritzako Nazioarteko Zuzenbideak enpresa horiei ematen dien txeke zuria, Garapenerako Eskubidearen egikaritzarekiko kontrajarria da. Horrela, birbanaketa eta banaketa ekonomikoa muinean duten giza eskubideak, ezerezean gelditzen dira, adierazpen politiko hutsetara mugatzen dira. Beren eraginkortasun juridikoa eta galdagarritasuna deusezak dira.<sup>67</sup>

#### 2.2.4. Adierazpenaren balio juridikoa

Arestian aipatu bezala, Garapenerako Eskubidea Asanblada Nagusiaren Adierazpen batean jaso zen. Ordutik hona, eskubide horren balio juridikoa, hau da, eskubide hori zein punturaino den lotestea, eztabaidatsua izan da.<sup>68</sup> Gai horrek berebiziko garrantzia du eskubidea praktikan jartzea baldintza dezakeelako, edo, hobe esanda, praktikan dagoeneko baldintzatzen duelako.<sup>69</sup>

Doktrinak jarrera kontrajarriak erakusten ditu gai horren inguruan. Egile askoren aburuz, nahiz eta garapenerako eskubidea tresna ez-lotesle batean jasotzen den, bere edukia lotesleak diren tresna askotan oinarritzen da.<sup>70</sup> Are gehiago, Adierazpenean bertan zehazten da, garapenerako eskubidea nazioarteko zuzenbidean garai hartan existitzen ziren arauetan oinarritzen zela. Izan ere, Nazio Batuen Gutunari; Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalari; Ekonomia-, gizarte- eta kultura-eskubideen Nazioarteko Itunari; Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Itunari; eta bestelako itun, ebazpen, gomendio eta egintza juridikori aipamena egiten die.<sup>71</sup> Horrela, nazioarte mailan finkaturik dagoen eskubidea dela defendatzen da.<sup>72</sup>

Hala ere, iritzi hedatuena kontrakoa defendatzen du, zera da, garapenerako eskubideak ez duela inolako galdagarritasun ahalmenik, *soft law* tresna batean jasotzen da eta. Bada, *soft law* hitzak berak, nazioarteko komunitateak onartu dituen eta estatuak adierazpenetan jaso dituzten, baino balio arauemailerik ez duten arauak aipamena egiten die.<sup>73</sup> Izan ere, Nazio Batuen Gutunean ez da adierazten Asanblada Nagusian onartzen diren Adierazpenak lotesleak diren (Gutunaren 25. artikuluan Segurtasun Kontseiluaren ebazpenen lotesletasuna aipatzen da, ez ordea, Asanblada Nagusiarenak).<sup>74</sup>

---

<sup>66</sup> *Ibidem*.

<sup>67</sup> Hernández, Juan (2006) “Las empresas transnacionales españolas en América Latina. Los códigos de conducta como sistemas atípicos de regulación de las relaciones laborales” *Lan Harremanak* 14. zk., 133. or.

<sup>68</sup> Ruiz Morato, Natalia, *op. cit.*, 15. or.; eta Ibhawoh, Bonny, *op. cit.*, 12. or.

<sup>69</sup> Gómez Isa, Felipe (2003), *op. cit.*, 39. or.

<sup>70</sup> Kirchmeier, Felix, *op. cit.*, 4. or.; Gómez Isa, Felipe (2003), *op. cit.*, 40. or.; eta Alfarargi, Saad, *op. cit.*, 5. or.

<sup>71</sup> Teshome, Roman, *op. cit.*, 11. or.

<sup>72</sup> Gómez Isa, Felipe (2003), *op. cit.*, 40. or.

<sup>73</sup> Kirchmeier, Felix, *op. cit.*, 4. or.

<sup>74</sup> Nazio Batuak “Carta de las Naciones Unidas” (1945eko ekainaren 26koa).

### 2.3. Eskubidearen egikaritzea eta eztabaidak

Esaten ohi da Garapenerako Eskubidearen Adierazpena garaipen bat izan zela. Hala ere, geroztik, kezka handienetarikoa eskubidearen egikaritzea nola burutu eta garapen eskubidea pertsona ororentzat egi bihurtu dadila izan da.<sup>75</sup>

Garapenerako Eskubidearen hastapenenetan, nazioarteko betebeharrari enfasi berezia jarri zitzaion.<sup>76</sup> Teshomek aztertzen duenez<sup>77</sup>, 60ko eta 70ko hamarkadetan, “garapen bidean” dauden herrialdeetako egile askok egiturazko desberdinkeriak mahaigaineratu zituzten, eta Garapenerako Eskubidea “garapen bidean” dauden herrialdeen eta herrialde “garatuen” arteko harreman desorekatuak kudeatzeko planteatu zen. Nazioarteko komunitatearengandik herrialde guztietan ongizatea bermatzeko bestekoak ziren baldintzak ezar zitezen eskatu zen. Gainera, Teshomek berak honakoa azaltzen du: Keba M’Baye, garapenerako eskubideari buruz aritu zenean, berariazko garrantzia eman zien nazioarteko betebeharrari. Hain zuzen, giza eskubideen egikaritzea herrialde aberatsen eginkizuna zela aldarrikatu zuen, nazioartean burutu dituzten eginkizunengatik eta horien ondorioengatik. Gainera, aldarrikapen horiek NOEB galdatzen zen testuinguruan burutu ziren, antzera, herrialde garatuengandik garapenerako aproposa zen orden ekonomiko berria ezar zedila eskatzen zuena (kolonialismoak izandako eraginengatik ordaina emateko). NBen Giza Eskubideen Komisioan ere, Hegoaldeko herrialdeek Mendebaldeko herrialdeei beren azpigarapenagatik eta eskubide ekonomiko eta sozialak bete ezin izanagatik erantzukizuna galdatu zioten. Hala ere, Theshomeren hitzetan, Garapenerako Eskubideari buruzko Adierazpena aurrerapausotzat jotzen den arren, ez zien munduko botere ekonomikoen desorekari, edo zehatzago NOEBren sustapenari era zehatzean eutsi.

Adierazpena onartu arte, zirriborro pare bat burutu ziren. Horietan, nazioarteko betebeharrak era zehatzagoan jasotzen ziren.<sup>78</sup> Aitzitik, azkenean, estatu boteredunen eraginez, barne betebeharrak gailentzen zituen adierazpena onartu zen.<sup>79</sup> Mendebaldeko herrien erresistentziak direla eta, nazioarteko betebeharrak oso era lausoan jaso ziren. Horrela, mendebaldeko aberastasun-kontzentrazioaren kontuari, estatu “pobreentzat” kaltegarriak ziren ekonomia arauak, eta beren pobretzea eragin duten arrazoi historikoei garrantzia kendu, eta, ordea, estatu pobreek beren biztanleenganako dituzten eginbeharretan jarri zen arreta.<sup>80</sup> “Garapen bidean” dauden herrialdeek, “garatuei” nazioarteko politikak eta nazioarteko orden ekonomikoa aldatzeko galdatzen dieten bitartean, herrialde “garatuek”, garapenerako eskubidea bete dadila, “garapen bidean” dauden herrialdeek beren barne egitura aldatu behar dutela azpimarratzen dute.<sup>81</sup> Honako auzia izan zen, hain zuzen, Adierazpena onartzeko bozketan kontrako jarrerak edo abstentzioak eragin zituena.

<sup>75</sup> Teshome, Roman, *op. cit.*, 2. or.

<sup>76</sup> Ibhawoh, Bonny, *op. cit.*, 8. eta 83. orr.

<sup>77</sup> Teshome, Roman, *op. cit.*, 2. or.

<sup>78</sup> *Ibidem*, 12. or.

<sup>79</sup> *Ibidem*, 3. or.

<sup>80</sup> *Ibidem*, 4. or.

<sup>81</sup> Kirchmeier, Felix, *op. cit.*, 10. or.

Hori guztia ez zen hizkuntzari buruzko eztabaida hutsala izan, botere harremanen kontua hurbiletik ukitzen duena baino. Iparraldean, hegoaldetik sutsuki bultzatu ziren nazioarteko betebeharrak garrantzi gutxi ematen zitzaizkien. Garapenerako eskubidearen baitan jasotzeko zegoen justizia birbanatzailea merkatu-librearekin eta egitura kapitalistarekin bateraezina baitzen.<sup>82</sup>

Lehen aipatu bezala, Vienako Konferentzian Garapenerako Eskubidea ahobatez onartu zuten, zeinaren garapenerako eskubidea berresten zen. Hortaz, esan ohi da Vienako Konferentziaz geroztik garapenerako eskubideak estatuen onarpen zabalagoa jaso zuela. Hala ere, tresna horretan nazioarteko eginbeharrak zehaztasun falta handiagoarekin agertu ziren. Izan ere, estatuek lankidetzaren burutzeko “beharra”, lankidetzaren “egin beharko luketeenaren” gomendioarekin ordezkatu zuten.<sup>83</sup>

Horrek guztiak, berebiziko garrantzia du eskubidearen egikaritzaz ari garenean. Jarrera kontrajarri horiek mantentzen diren bitartean, edo hobe esanda, mendebaldeko herrialdeek beren nazioarteko erantzukizunak onartzen ez dituzten bitartean, ez dagoelako Garapenerako Eskubidea egikaritzarik.

### **3. Garapenerako Eskubideari buruzko azken aldiko bilakaera**

#### **3.1. Garapenerako Eskubideari buruzko Hitzarmen Proiektu bateranzko lehenengo pausuak**

Adierazpenaren onarpenaz geroztik, Garapenerako Eskubideari buruz idatzi den gehienetan, eskubidea egi bihurtzeko bideei hitz mordoak eskaintzen zaizkie. Egile gehienek ardura izan da eskubidea egikaritzeko existitzen diren oztopoak identifikatzea, eta, hortik aurrera, horiei aurre egiteko moduak aurkitzea.

Batzuetan, egun ezagutzen dugun Garapenerako Eskubidearen arauetatik abiatuta (Asanblada Nagusiak onartutako Adierazpena) eskubidea martxan jartzea bilatzen da. Esaterako, Garapen Iraunkorreko Helburuak barnebiltzen dituen Agenda 2030 garapenerako eskubidea indarberritzeko tresna gisa erabiltzea, nazioarteko politika eta erakundearen egintzetan garapenerako eskubidea zeharka barnebiltzea, edo estatuen politikek garapenerako eskubidea lehenetsi dezatela bultzatzea.<sup>84</sup>

Horrez gain, adituek garapenerako eskubidearen egikaritzarako zenbait estrategia proposatu dituzte. Lehen, estatuen lankidetzaren aritzeko betebeharrak indartzea, zeina nazioarteko zuzenbidean hainbat modutan ezarri den. Izan ere, lankidetzaren aritzeko betebeharrak giza eskubideei buruzko tratatu anitzetan aipatu da, eta tratatuak ikuskatzen dituzten organoak betebeharrak horri buruzko adierazpenak egin dituzte jada. Hortaz, lankidetzaren aritzeko betebeharrak indartzeko, alde batetik, tratatu-organismoek gai horri arreta gehiago jarri behar diote, estatuek betebeharrak hori betetzen duten ala ez aztertzeko; eta bestetik, 2030 Agendan

<sup>82</sup> Mutua, Makau, *op. cit.*, 563. or.

<sup>83</sup> Teshome, Roman, *op. cit.*, 14. or.

<sup>84</sup> Li, Yuefen; Uribe, Daniel; Danish (2022) “Challenges and Potential to Revamp the Normative Framework on the Right to Development” *Society for International Development*, 65. zk., 4. or.

barneratu den lankidetzaz goraipatu beharko litzateke. Bigarrenik, garapenerako eskubidea ikuskatzen duten tratatu-organoek estatuen betebeharrak zehatzagoak ezarri behar dituzte eta estatuek nola betetzen dituztenaren jarraipen zorrotza egin. Eta azkenik, Garapenerako Eskubidea jasotzen duten eskudealdeko tresna juridikoen bidez eskubidearen egikaritzea suspertu behar da, eta kasu horretan Afrikako Giza eta Herrien Eskubideei buruzko Gutuna eredutzat hartu beharko litzateke, zeinak Garapenerako Eskubidea era loteslean jasotzenduen.<sup>85</sup>

Nazio Batuen Giza Eskubideen Komisioak, 2016an, garapenerako eskubidea egi bihurtzeko premia azpimarratuta, errelatore berezia izendatu zedila erabaki zuen 33/14 Ebazpenean.<sup>86</sup> Errelatore Bereziak agindu berezi bat betetzeko Komisioak izendatzen dituen aditu independenteak dira. Kasu horretan, Garapenerako Eskubideari buruzko Errelatoreari eskubidearen sustapena, babesa eta egikaritzea bultzatzeko aginduak eman zitzaizkion. Errelatoreak urteko txostenak egiten ditu, eskubidearen egikaritzarako gomendioak ematen ditu, eta norbanakoen, gizarte zibilaren, gobernu arteko erakundeen, edo giza eskubideei buruzko erakundeen salaketak jaso eta estatuei jakinarazpenak egin diezazkioke. Hala ere, errelatorearen erabakiak, nahiz eta aditu izaerako pisua duten, ez dira lotesleak.<sup>87</sup>

Gehienetan, garapenerako eskubidea galdagarria bihurtu dadila galdatzen da, hain zuzen, Garapenerako Eskubideari buruzko Hitzarmen baten bidez.<sup>88</sup> Izan ere, azken hamarkadetan “garapen bidean” dauden herrialdeek Garapenerako Eskubidearen Hitzarmenerakoahaleginak bultzatu dituzte, eta, oraingoz, mendebaldeko herrialdeen erresistentzia sutsuekin egin dute topo.<sup>89</sup> Iparraldeko herrialdeei ez zaie atsegina egiten garapenerako eskubideatresna loteste batean jasotzearen ideia.<sup>90</sup> Baina 2020an, azkenean, Hitzarmen Proiektu bat burutzea lortu zen. Horregatik, hurrengo orrietan honakoa aztertuko da: HitzarmenProiektuak dakartzan onurak edo gabeziak, Adierazpenean eman ziren gabeziak zuzentzea lortzen den ala ez, eta zein nolako bideragarritasuna duen.

Garrantzitsua izango litzateke oso Hitzarmenean nazioarteko lankidetzaz eta betebeharrak era argiagoan jasotzea. Gainera, nazioarteko zuzenbideak kolonizazioak eta esklabotzak izandako eraginak konpontzeko gai ez izatea, zuzenbide horrek berak bi fenomeno horiekin duen konplizitateari egozten zaio. Eta beraz, Garapenerako Eskubidearen jatorrizko kontzeptua berreskuratzea (mendebaldeko herrialdeen nazioarteko eginbeharrak jasotzea), nazioarteko zuzenbidearen deskolonizazioranzko pausua izango litzateke.<sup>91</sup>

Aurretik aztergai izan den Garapen Eskubideari buruzko Adierazpena duela gutxira arte Garapenerako Eskubidea jasotzen zuen tresna nagusia izan da. Esan bezala, eskubidea ez da galdagarria izan, adierazpen izaerako tresna batean jasotzen baitzen, eta hamarkadetan

<sup>85</sup> Arts, Karin eta Tamo, Atabongawung (2016) “The Right to Development in International Law: New Momentum Thirty Years Down the Line?” *International Institute of Social Studies (ISS)*, 19-24. orr.

<sup>86</sup> Nazio Batuak, Asanblada Nagusia “Resolución aprobada por el Consejo de Derechos Humanos el 29 de septiembre de 2016”, A/HRC/RES/33/14 (2016ko urriaren 5eko), 14. paragrafoa.

<sup>87</sup> Ibhawoh, Bonny, *op. cit.*, 2. orr.

<sup>88</sup> Teshome, Roman, *op. cit.*, 5. orr.

<sup>89</sup> Schrijver, Nico, *op. cit.*, 5. orr.

<sup>90</sup> Ibhawoh, Bonny, *op. cit.*, 97. orr.

<sup>91</sup> Teshome, Roman, *op. cit.*, 15. orr.

zehir hegoeldeetako herrialdeek Garapenerako Eskubideari buruzko Hitzarmenaren beharra aldarrikatu dute. Denbora luzez, baina, mendebaldeko herrialdeen erresistentziak direla eta, aldarrikapen horiek ezerezean gelditu dira.

2018an, Giza Eskubideen Kontseiluak, Garapenerako Eskubidearen egikaritzagatik kezkatuta, hitzarmen proiektu bat burutu zedila agindu zuen 39/9 Ebazpenean. Ebazpenhorretan, besteak beste, gosea, muturreko pobrezia, desberdinkeria, enpresa transnasionalek gero eta gehiagotan burutzen zituzten giza eskubideen urraketak garapenerako oztopotzat aurrezaguten ditu, eta munduko herrialdeen ardura partekatuaz aurre egin behar zaiela aintzatesten du. Horretarako, Garapenerako Eskubideari buruzko Lan Taldeak, Giza Eskubidearen Kontseiluaren 20. bilkuran Garapenerako Eskubideari buruzko Hitzarmen bat onartzeko eztabaida hasi dezala agintzen du, eta, zehazki, Errelatore Bereziari bilkuran emandako eztabaiden araberako hitzarmen proiektu bat hasteko ardura ematen dio (17. e) eta f) paragrafoak).<sup>92</sup>

2019an Garapenerako Eskubideari buruzko Lan Taldea, Giza Eskubideen Kontseiluak agindutakoari jarraiki, hitzarmen proiektuari buruzko lehenengo eztabaidari hasiera eman zion bere 20. bilkuran. Hortan, estatuek hitzarmena gauzatzearen aldeko zein aurkako jarrerak agertu zituzten, eta zenbait aditurekin elkarrizketak eman ziren. Eztabaida honetan Iparraldeko eta Hegoaldeko herrialdeen jarrera kontrajarriak mantendu ziren. Esaterako, Europar Batasunak, Suitzak eta Japoniak hitzarmen baten beharraren aurkako adierazpenak egin zituzten. Hegoaldeko herrialde askok<sup>93</sup>, ordea, hitzarmena onartzearen premia argi eta garbi adierazi zuten. Eztabaida horretan bertan, geroko hitzarmen batean jaso behar ziren gai asko mahaigaineratu ziren, hala nola, aldaketa klimatikoa, desberdinkeria gero eta nabariagoak, pribatizazioak, bakearen eta garapenaren arteko harremana, egiturazko desberdinkeriak, herrialdeen parte-hartze desorekatua merkatuetan, eta, batez ere, nazioarteko lankidetzan aritzeko betebeharra.<sup>94</sup>

Eztabaida horietatik abiatuta, Giza Eskubideen Kontseiluak Errelatore Bereziari Hitzarmen Proiektuaren zirriborro bat prestatu zezala, eta Lan Taldearen hurrengo bilkuran aurkeztu zezala agindu zuen, 42/23 Ebazpenaren bidez (20. e) eta g) paragrafoak).<sup>95</sup> Geroztik, lehenik, lehenengo Hitzarmen Proiektu bat burutu da; bigarrenik, herrialdeek proiektuari buruzko iruzkinak egin dituzte; eta, hirugarrenik, iruzkin horietatik abiatuta, proiektuaren berrikusketak gauzatu dira. Hala ere, egun, onartu gabe jarraitzen duen tresna dugu, hau da, proiektua baino ez da mahai gainean dagoena. Lan honetan proiektu horren azterketa egingo da.

<sup>92</sup> Nazio Batuak, Asanblada Nagusia “Venezuela (República Bolivariana de)\*: proyecto de resolución”, A/HRC/39/L.12 (2018ko irailaren 25ekoa).

<sup>93</sup> Hitzarmenaren aldeko jarrera erakusten dutenak, honakoak dira: Lerrokatu Gabeko Estatu Mugimendua, Afrikako Estatu Taldea, Lankidetzeta Islamikoaren Elkarte, Txina, Catar, Mozambique, Egipto, Nigeria, Hegoafrika, Bolivia, Burkina Faso, India, Txad, Pakistan, Indonesia, Ekuador eta Bangladesh. Hemen ikusita: Nazio Batuak, Asanblada Nagusia “Informe del Grupo de Trabajo sobre el Derecho al Desarrollo acerca de su 20º período de sesiones (Ginebra, 29 de abril a 3 de mayo de 2019)”, A/HRC/42/35 Ebazpena (2019ko ekainaren 25ekoa).

<sup>94</sup> Nazio Batuak “20º período de sesiones” A/HRC/42/35, *op. cit.*

<sup>95</sup> Nazio Batuak, Asanblada Nagusia “Venezuela (República Bolivariana de)\* y Estado de Palestina\*\*”: proyecto de resolución”, A/HRC/42/L.36 (2019ko irailaren 20koa).

Izan ere, hurrengo orrietan, Hitzarmen Proiektuari, eta bere berrikuspenei buruzko nondik norakoak aztertuko dira, hau da, Proiektuarekin aurrerapenik lortu daitezkeen, aurreko Adierazpenean eztabaidatsuak izan ziren kontuak gainditu diren, eta herrialdeek eta egileek hitzarmen honekiko zein jarrera duten. Izan ere, ikusiko denez, Hitzarmena onartzeko aldeko jarrera asko badaude ere, hitzarmenaren arriskuak azpimarratzen dituztenak ere egon badaude.

### 3.2. Lehenengo Hitzarmen Proiektua

Lehenengo Hitzarmen Proiektua prestatzeko ardura, bost adituz osatutako lan talde baten esku utzi zen: Mihir Kanade (India) Presidente eta errelatore berezi gisa, Makane Moïse Mbengue (Senegal), Koen de Feyter (Belgika), Diane Desierto (Filipinak) eta Margarete May Macaulay (Jamaika).<sup>96</sup> Horiek, 2020ko urtarrilean, Lan Taldearen 20. bilkuran gertatutako eztabaida oinarri hartuta, Hitzarmen Proiektuaren Zirriborro bat eta testu horri buruzko iruzkinak argitaratu zituzten.<sup>97</sup> Hurrengo orrietan, Hitzarmen Proiektu honen edukiari eutsiko zaio.

Adierazpenari buruzko aurreko atalean agerian geratu da tresna hori hutsune askorekin onartu zela. Esaterako, ez ziren nazioarteko betebeharrak zehaztu, ez zen garapen jasangarria kontuan hartu eta emakumeen kontuari ez zitzaion arreta berezirik jarri. Oraingoan Hitzarmen proiektuaren edukia aztertuko da, batez ere, balioa gehitzen duten adiera berriak eta bidean gelditu diren zenbait aldarrikapenak.

Egiturari dagokionez, Hitzarmena Adierazpenaren antzera hitzaurrearekin hasten da. Hitzaurrearen 27 paragrafoetan zehar garapenerako eskubideari buruzko orokortasun batzuk jasotzen ditu. Bertan, garapenerako eskubidearen egikaritzea gizateriaren ardura bezala azaltzen du, eta Adierazpenaren hitzak errepikatuz, pertsona eta herrien eskubide besterenezin bezala identifikatzen du. Ordea, jasangarritasuna jasotzen da berritasun moduan, eta garapenerako eskubidea jasotzen duten bestelako eskualde tresna juridikoei aipamena egiten zaie.<sup>98</sup>

Ondoren, hitzarmenaren zati arauemailean, adierazpenarekiko ezberdintasun nabaria ematen da. Adierazpena 10 artikuluz baino ez zen osatzen. Hitzarmena ordea, bost zatitan banatzen diren 36 artikuluz osatzen da. Lehenengo zatiak, Hitzarmenaren xedea, eta zenbait terminoren azalpena jasotzen du, bai eta proiektuaren printzipio orokorrak ere. Bigarren zatian, garapenerako eskubidearen esanahia, eta eskubide honen eta gainerako eskubideen arteko harremana jasotzen da. Hirugarrena, betebeharrak dagokiona litzateke, estatuaren betebeharrak, nazioarteko erakundearen betebeharrak, lankidetzan aritzeko betebeharra, etab. jasotzen dituena. Laugarren zatian, eskubidearen egikaritzaren jarraipena egiteko organoak aurreikusten dira. Eta bosgarrenak eta azkenak, hitzarmenaren alde teknikoak jasotzen ditu,

<sup>96</sup> Nazio Batuak, Asanblada Nagusia “Draft Convention on the Right to Development”, A/HRC/WG.2/21/2 Ebazpena (2020ko urtarrilaren 20koa), 10. paragrafoa.

<sup>97</sup> Nazio Batuak, Asanblada Nagusia “Draft Convention on the Right to Development, with commentaries”, A/HRC/WG.2/21/2/Add.1 Ebazpena (2020ko urtarrilaren 20koa).

<sup>98</sup> Schrijver, Nico, *op. cit.*, 7. or.



besteak beste, sinadura, onarpena, indarrean sartzea, zuzenketak eta gordailua nolakoak izango diren.<sup>99</sup> Horri guztiari hurbiletik begiratuko zaio hurrengo orrietan.

### 3.2.1. Garapenerako Eskubidearen esanahia Hitzarmen Proiektuan

Garapenerako Eskubidea 1986ko Adierazpenean jasotzen zen modu berean, pertsona ororen eta herrien eskubide besterenezina da, zeinaren arabera gainerako eskubideekin era bateragarrian, garapen ekonomiko, sozial, kultural, zibil eta politikoan parte har dezakeen(4.1 art.). Zentzu horretan, ez da Adierazpearekiko aldaketarik eman.

Kasu honetan ere, garapen prozesua parte-hartzailea izan behar duela jasotzen da. Ez zaio, Adierazpenean gertatzen zen bezala, parte-hartzeari berariazko artikulua gordetzen, baina zera jasotzen da: pertsonak eta herriek garapen prozesuan parte hartze aktibo, libre eta esaguraturako eskubidea dute (4.2. art.). Bestetik, nahiz eta subjektu bikoitzaren ideia (kolektiboa eta indibiduala) eztabaidagarria izaten jarraitu duen, Hitzarmen Proiektuan bikoitzasun hori mantendu da, “pertsonak eta herriek” dutela garapenerako eskubidea.

Hitzarmenean jasotzen den garapenaren ikuspegiaren inguruan, zenbait aldaketa eman dira. Esaterako, Adierazpenari buruzko atalean aipatu da, tresna horretan garapenaren ikuspegi antropozentrikoa gailentzen zela, bada, garapen eredu horrek gizakia erdigunean kokatzen zuela, eta jasangarritasunaren kontua ez zela aintzat hartzen. Rioko Adierazpenean Garapenerako Eskubidea barnebildu zenetik, Garapenerako Eskubidearen Adierazpena jasangarritasunarekin bat egiten zuela aipatu da. Oraingoan, ordea, Hitzarmenak jasangarritasunaren gaia berariaz jasotzen du.

Hala eta guztiz ere, Hitzarmen Proiektuak ez du ikuspegi antropozentrikoa erabat galtzen. Izan ere, Proiektuaren hitzaurrean, Adierazpenean agertzen zen esaldia hitzez hitz agertzen da: “garapena pertsonaren eta herrien ongizatearen etengabeko hobekuntzan datza”. Eta gainera, 3.a. artikuluan zehazki jasotzen da, garapenerako eskubidea egikaritzeko gizakia erdigunean duen garapenaren printzipioari jarraitu behar zaiola, zeinari jarraiki gizakia eta pertsonak garapenaren subjektu nagusiak diren, eta garapenerako eskubidearen parte hartzaile eta onuradunak diren.<sup>100</sup>

Hori bai, Hitzarmena ikuspegi antropozentrikoaz haratago joaten da. Tresna berri horretan, jasangarritasuneranzko aurrerapausoa ematen da. Izan ere, adierazten du ingurune osasuntsua izatea gizateriaren etorkizun oparoa, bidezkoa eta segurua izateko oinarria dela. Halaber, ingurunea zaintzea funtsezkoa izango da pobrezia aurre egiteko eta osasuna hobetzea lortzeko.<sup>101</sup> Horrela, ingurune osasuntsua mantentzeko giza-garapena eta ingurunearen errespetua ezin dira bananduta ulertu. Ordurarte giza garapena eutsi duten ingurune baliabideen erabilpena hainbeste handitu da, non baliabide horiek hondatzen hasiak diren. Hori dela eta, garapen ekonomiko eta sozialaren eta pertsonen eta biosferaren ongizatearen arteko oreka bilatzea premiazkoa da. Garapen estrategiak, eredu ekonomikoak, enpresa

<sup>99</sup> *Ibidem*, 8. or.

<sup>100</sup> Teshome, Roman, *op. cit.*, 14. or.; eta Nazio Batuak “Draft Convention...”, A/HRC/WG.2/21/2, *op. cit.*, hitzaurrea eta 3. art.

<sup>101</sup> WWF International (2016) “Living Planet Report 2016. Risk and resilience in a new era”, 6. or.

ereduak eta bizi aukerak honako ideia hauek aintzat hartu behar dute: planeta bakarra da, eta kapital naturala mugatua. Hots, garapen estrategiek jasangarritasunaren berri izan behar dute.<sup>102</sup> Horregatik, gogoan izan beharra dago aldaketa klimatikoak eta ingurumen arazoek, egoera zaurgarrian dauden pertsonengan eragin nabarmenak dituztela, eta giza garapeneranzko atzera egitea dela.<sup>103</sup>

Beraz, Proiektuan ingurumenari buruzko kezkei berariazko tokia eskaintzen zaie, eskubidearen egikaritzarako garapen jasangarriaren printzipioari so egin behar baitzaio (hitzaurrea eta 3.e. art.). Horretaz gain, garapen jasangarriaren funtsezko elementua den belaunaldiarteko ekitatea<sup>104</sup> jasotzen da, zera da, estatuen egintzak, belaunaldien arteko ekitatea urratu gabe burutu behar direla (22.b. art.).<sup>105</sup>

Horrela, Adierazpenaren gabeziak bati eusten zaio, Adierazpenean ez baitzen garapen jasangarriari buruzko deusik aipatzen. Hala ere, garapen jasangarria jasotzen duen xedapen hori eskasegia izateagatik kritikak jaso ditu, ez baitizkie estatuei ingurumenaren inguruan betebeharrak zehatzik ezartzen. Garapena lortzeko prozesua izan da hain zuzen ingurumenaren degradazioa bultzatu duen arrazoi nagusienetarikoa. Hortaz, garapen ekonomikoa eta ingurumenarekiko errespetua uztartzen dituen ikuspegia bultzatzea ezinbestekoa da. Gainera, aldaketa klimatikoa eta ingurumenaren degradazioa garapenerako eskubidearen egikaritza burutzeko oztopoak dira. Eta hori guztia, gainera, ingurumenaren arazoak areagotzen ari diren, eta arazoek premiazko erantzunak galdatzen dituzten testuinguruan. Testuingu horretan, batek pentsako luke, Hitzarmenak arazo horien konponbide zehatzagoak ezarriko lituzkeela; ez da, alabaina, horrela izan.<sup>106</sup>

Adierazpenari buruzko atalean, tresna horren beste gabeziak bat aipatu da, hain zuzen, emakumeen kontuari azal-azalek eutsi zitzaioela. Izan ere, 1986ko Adierazpenean, genero kontuari egiten zitzaion aipamena eskasa baino eskasagoa izan zen, hain zuzen, emakumeei buruzko aipamen bakarra egiten da, beren parte hartzea sustatu behar dela jasoz (8.1. art: “Emakumeak garapen prozesuan parte har dezan neurri eraginkorrak hartu behar dira”). Garapenaren ikuspegi integral batek ordea, gai horri berariaz eutsi beharko lioke, ordurate, garapenaren ikuspegi heterodoxoek emakumeak alde batera utzi dituztelako. Horrela, Hitzarmena, gabezia hori gairatzeko aukera gisa agertzen da, ikusteke dago, hala izan den ala ez.

Hitzarmen Proiektuan genero berdintasunari berariazko artikulua bat gorde zaio, titulu horren izenpean: “Genero berdintasuna”. Artikulu horrek emakumeen garapenerako eskubidearen

---

<sup>102</sup> *Ibidem*, 106. or.

<sup>103</sup> Ruiz Morato, Natalia, *op. cit.*, 19. or.

<sup>104</sup> 1987ko Ingurumen eta Garapenari buruzko Munduko Komisioaren txostena, “Gure etorkizuna amankomunean” izena hartu zuena (“Brundtland Txostena” izenez ezagunagoa), belaunaldiarteko ekitatearen kontzeptuaren aintzindaria izan zen. Txosten horretan aldarrikatu zenez, garapen jasangarria burutzeko, egungo premiak datozen belaunaldien premiak urratu gabe asetu behar dira (27. paragrafoa). Eta, geroztik, belaunaldiarteko ekitatea garapen jasangarriaren funtsezko elementu gisa onartu da. Hemen ikusita: Nazio Batuek, Asanblada Nagusia “Report of the World Commission on Environment and Development: Our Common Future”, A/42/427 (1987ko abuztuaren 4koa).

<sup>105</sup> Teshome, Roman, *op. cit.*, 14. or.

<sup>106</sup> *Ibidem*, 15. or.

gozamina bermatzeko hartu behar diren zenbait neurriren zerrenda jasotzen da. Hitzarmenari jarraiki, estatuek emakumezkoentzako aldi baterako neurri bereziak har ditzakete, emakumeen aurkako diskriminazioei aurre egiteko (16.1. art.). Gainera, emakumeen aurkako indarkeria orori eutsi behar diote; emakumeen parte-hartze osoa ziurtatu behar dute; emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten politika eta legeak onartu behar dituzte; genero ikuspegia legeen eta politiken momentu orotoan barnebidu behar dute (formulatzean, onarpenean eta egikaritzan); eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna ziurtatu behar dute, garapenerako eskubidea egikaritzeko bestekoak diren baliabideak eskuratzean (16.2. art).<sup>107</sup>

Artikulu berri horrekin, ematen du Hitzarmen Proiektuak emakumeen kontuari era sakonean eusten diola. Izan ere, jarraian aipatuko denez, nazioarteko testuinguruan emakumeei buruzko tresna nagusia den, Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioan (bere ingeleseko siglengatik ezagunagoa, CEDAW) ezartzen denarekin bat dator. Lehenik, CEDAWren arabera, emakumeen aurkako diskriminazioei heldu behar zaizkie garapenerako oztopoa direlako,<sup>108</sup> eta aipatu denez, Hitzarmen Proiektuaren 16.1 artikulua emakumeen aurkako diskriminazioei aurre egiteko neurriak hartu behar direla aipatzen du. Bigarrenik, CEDAWri jarraiki, emakumeen parte-hartzea funtsezkoa da garapena gauzatzeko,<sup>109</sup> eta berriro ere, Hitzarmen Proiektuan emakumeen parte-hartzea sustatzeko neurriei buruzko xedapena jasotzen da (16.2.b art.). Eta hirugarrenik, CEDAW hitzarmenean honakoa jasotzen da, bakea indartzea, armagabetzea eta estatuen artean lankidetzan aritzea, garapena gauzatzera lagunduko dutela, eta beraz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko pausua izango dela.<sup>110</sup> Azken xedapen horri dagokionez, esan liteke, Hitzarmen Proiektuaren funtsak berak (garapena pertsona oroentzat egi bihurtzea nazioarteko komunitatearen lankidetzan aritzeko betebeharra azpimarratuz, eta bakea eta armagabetzea bezalako kontuak barnebiduz, hurrengo ataletan ikusiko denez) CEDAWren xedapenarekin bat egiten duela.

Hala eta guztiz ere, batek galde dezake, nahiz eta emakumeei zuzentzen zaien artikuluberezia jasotzen den, emakumeen egoera hobetzeko bestekoa den garapena sustatzeko nahikoa den ala ez, edo testuak, bere osotasunean genero ikuspegiak gordetzen duen ala ez. Izan ere, dagoeneko, ez da gauza berria, genero ikuspegia era partzialean jaso duten garapen ikuspegi androzentrikoek ez dutela emakumeentzako emaitza eraldatzailerik lortu.<sup>111</sup> Ikuspegi partzial horiei erantzuteko, 1995eko Emakumeari buruzko laugarren mundu-bileran, Pekinen, *mainstreaming* estrategia sortu zen, zeinari jarraiki, botere publikoek genero ikuspegia egintza orotan barnebidu behar duten. *Mainstreaming* ikuspegia garapenerako jardunbideetan barnebiltzeko, genero ikuspegia garapenerako politiken prozesu osoan zehar

<sup>107</sup> Nazio Batuak “Draft Convention...”, A/HRC/WG.2/21/2, *op. cit.*

<sup>108</sup> Nazio Batuak, Asanblada Nagusia “Convención sobre la eliminación de todas las formas de discriminación contra la mujer” 34/180 (1979ko abenduaren 18koa), hitzaurrea.

<sup>109</sup> *Ibidem.*

<sup>110</sup> *Ibidem.*

<sup>111</sup> Volio, Roxana (2008): “Género y Cultura en la Planificación del Desarrollo” Fundación Canaria para el Desarrollo Social (FUNDESCAN). Kanaria Handia, 109-110. orr.

barneratu behar da.<sup>112</sup> Egia da, Hitzarmen Proiektuak mainstreaming estrategiaren aipamena aintzatesten duela, Proiektuari jarraiki genero ikuspegia egintza orotan zeharka barnebildu behar delako (16.2.d).<sup>113</sup> Hala ere, Garapenerako Hitzarmen Proiektuak genero kontuetan izan dezakeen eragina ezagutzeak, eta genero ikuspegia modu egokienean jasotzen denezagutzeak, azterketa askoz sakonago bat galdatzen du, lan honen mugak gainditzen dituena.

Oro har, esan daiteke, Hitzarmen Proiektuak Adierazpenarekiko aurrerapausoa eman duela, emakumeei dagozkien kontuak era zehatzagoan jasotzen baititu. Baina aztertzeke geldituko litzateke benetako eragin eraldatzaileak izateko nahikoa den ala ez.

Amaitzeko, Adierazpenaren atalean aipatu den bezala, garapenaren ikuspegi integralari so eginez, 1986ko testuan, garapena laguntzen duten bestelako alderdiak barnebildu ziren, hala nola, bakea eta armagabetzea. Eta Hitzarmen Proiektuan bakea eta armagabetzeari buruzko aipamena mantendu da.

Hitzarmen Proiektua prestatu aurretiko Lan Taldearen 20. bilkuran, zenbait estatuk, bakearen garrantzia azpimarratu zuten, batez ere, garapena eta bakearen arteko lotura. Esaterako, Hegoafrikak zera adierazi zuen: “ez dago bakerik garapenik gabe, ez eta garapenik bakerik gabe”. Ildo berean, Etiopiaren arabera, garapen falta gatazka askoren sorburua da, eta Angolak bakea sustatzeko nazioarteko ekimenaren premia azpimarratu zuen.<sup>114</sup>

Adierazpen horiekin bat eginez, eta 1986ko Adierazpenean jasotzen zen bakearen xedapenari so eginez, hitzarmenak bakeari buruzko adiera mantendu du. Izan ere, Hitzarmen Proiektuaren arabera, Estatuak nazioarteko bake eta segurtasuna ezarri, mantendu eta indartu behar dute (21.1. art), eta desarmatzea lortzeko ekintza kolektiboak martxan ipini behar dituzte, giza baliabideak, eta baliabide ekonomiko eta ekologikoak garapenaren egikaritzara bideratu daitezkeen (21.2. art.).<sup>115</sup>

### **3.2.2. Hitzarmen Proiektuan jasotzen diren betebeharrak**

Adierazpenaren atalean aipatu denez, mendebaldeko herrialdeen erresistentziak izan zirelaeta, estatuen betebeharrak, bere lurralde barruan, berebiziko lekua hartu zuten, eta nazioarteko eginbeharrak eta lankidetzari buruzko xedapenak oso era lausoan jasotzen zirela. Handik hona, Mendebaldeko herrialdeek, ordea behin eta berriro aipatu dute eskubide horren egikaritzarako ezinbestekoa dela nazioarteko testuinguruari arreta jartzea, horien aipamen ezaeskubidearen egikaritzarako oztoppo baitira. Hortaz, ezinbestekoa da orain Hitzarmenean kontu horien inguruko xedapenik jaso diren ala ez aztertzea.

#### **● Estatuak betebeharrak**

Lehenik eta bat, estatuen betebeharrei eutsiko zaie. Adierazpenean estatuen eginbeharrak oso era lausoan jasotzen ziren. Izan ere, era hain zabalean ezartzen ziren, non betebeharrak

<sup>112</sup> Cobo, Rosa; De la Cruz, Carmen; Volio, Roxana; eta Zambrano, Ada (2009): “Cuadernos de género: Políticas y acciones de género. Materiales de formación” *Universidad Complutense, Instituto Complutense de Estudios Internacionales*, Madril, 68. or.

<sup>113</sup> Nazio Batuak “Draft Convention...”, A/HRC/WG.2/21/2, *op. cit.*

<sup>114</sup> Nazio Batuak “20º período de sesiones” A/HRC/42/35, *op. cit.*, 21., 22. eta 29. paragrafoak, hurrenez hurren.

<sup>115</sup> Nazio Batuak “Draft Convention...”, A/HRC/WG.2/21/2, *op. cit.*

praktikan jartzeko zailtasuna nabaria zen. Oraingoan ordea, Hitzarmenak, estatuen eginbeharrak era zehatzagoan jaso ditu.<sup>116</sup> Hitzarmenak estatuen hiru motako behetebeharrak jasotzen ditu, hain zuzen, errespetatzeko, babesteko eta egikaritzeko betebeharrak (10., 11. eta 12. art., hurrenez hurren).<sup>117</sup>

Alde batetik, errespetatzeko betebeharrari jarraiki (10. art.), estatuek ezin dute garapenerako eskubidearen gozamina urratzen duen ezein ekintza (egintza zein ez-egitea) burutu, bere lurraldean edo bere lurraldetik kanpo (10.a. art.). Gainera, lurraldez kanpoko betebeharrak aplikagarriak izango dira, estatuek eskubidearen gozaminean eragiteko ahalmena duten heinean.<sup>118</sup> Zera da, eskubidea estatuen lurraldetik kanpo dagoen pertsonari urratzen zaionean, estatuen errespetatzeko betebeharra lurraldez kanpoko eremu horretara luzatuko da, estatuek horretan eragiteko ahalmenik badute.<sup>119</sup>

Horretaz gain, estatuek ezin dute beste estatuen edo nazioarteko erakundeen eskubidea egikaritzeko ahalmena urratzen duen egintzarik burutu (10.b. art.), edota eskubidearen gozamina urratzen duen beste estatu edo nazioarteko erakunde baten egintzan lagundu (10.c. art).<sup>120</sup>

Bestetik, babesteko beharrari dagokionez (11. art.), estatuek eskubidearen gozamina urratzen duten bestelako alderdien aurkako neurriak hartu behar dituzte, batez ere, hiru kasu hauetan: lehenengoa, hirugarren alderdiaren egintza estatuaren lurraldean bertan ematen denean. Bigarrena, eskubidea urratzen duen pertsonak (fisikoa zein juridikoa), estatu horren nazionalitatea duenean (11.b. art.). Eta hirugarrena, eskubidea urratzen duen pertsonak (fisikoa zein juridikoa) egoitza estatu horretan duenean (11.c. art.).

Azkenik, eskubidea egikaritzeko betebeharrak (12. art.), estatuek eskubidea egi bihurtu dadila politikak eta neurriak hartu ditzatela galdatzen du. Hau da, alde batetik, estatuek, banaka edo batera, eskubidearen betetzerako neurriak hartu behar dituzte, errespetatzeko eta babesteko betebeharrak urratu gabe, noski (12.1 art.). Eta bestetik, estatuek garapen legeak, politikak eta praktika propioak aurrera eramanez ahal dituzte, gainerako estatuen oztoporik gabe (12.2. art.); hots, estatuek ezin dituzte, laguntza, lankidetzeta, merkataritza edo inbertsioa erabili, gainerako estatuen kalterako.<sup>121</sup>

- **Nazioarteko erakundeen betebeharrak**

Hitzarmenean, Adierazpenarekiko berritasuna ematen da, Nazioarteko erakundeen betebeharrak berariaz jasotzen baitira. Adierazpenaren atalean aipatuenez, tresna horretan ez ziren nazioarteko erakundeak zehazki jasotzen, beren betebeharrak aipamen honetatik abiatuta ondorioztatu behar ziren: “estatuek kolektiboki aritzen direnean garapenerako

---

<sup>116</sup> Teshome, Roman, *op. cit.*, 19. or.

<sup>117</sup> Nazio Batuak “Draft Convention...”, A/HRC/WG.2/21/2, *op. cit.*

<sup>118</sup> Teshome, Roman, *op. cit.*, 16. or.

<sup>119</sup> Nazio Batuak “Draft Convention ... with commentaries”, A/HRC/WG.2/21/2/Add.1 46. or.

<sup>120</sup> Teshome, Roman, *op. cit.*, 17. or.

<sup>121</sup> *Ibidem*, 18. or.

eskubidea gauzatu behar dute”.<sup>122</sup> “Kolektibo” hitza, estatuek erakundeen bitartez aritzen direnaren egoeraz ari da. Hitzarmen Proiektuan, ordea, nazioarteko erakundeen betebeharrak berariazko xedapen batean jasotzen dira.

Hitzarmenari jarraiki, nazioarteko erakundeek<sup>123</sup> ezin dute garapenerako eskubidearen gozamina urratzen duen beste estatu baten edo beste nazioarteko erakunde baten ezeinekintza lagundu edo eragin (9. art.). Beraz, xedapen horretan nazioarteko erakundeen betebeharrak negatiboak jasotzen dira.<sup>124</sup>

Ordea, eta arestian aipatu den bezala, kontu hori ez da gai baketsua. Eztabaidatsua da nazioarteko erakundeek giza eskubideekiko betebeharrak dituzten edo ez. Batzuen arabera, giza eskubideen tratatuak ez dizkiete nazioarteko erakundeei betebeharrak zuzentzen, erakundeak ez baitute tratatu horietan alderdi gisa parte hartzen. Beste batzuk, aitzitik, nazioarteko erakundeen betebeharraren alde agertzen dira, estatuak direlako nazioarteko erakundeak sortzen dituztenak.<sup>125</sup>

Edozelan ere, Hitzarmenak nazioarteko erakundeen betebeharrak negatiboak jasotzen ditu, eta, gainera, erakundeek Hitzarmena sinatu dezaten, eta beraz, tratatuaren alderdi bihurtu daitezten, aukera ematen du (27. eta 28. art.).

#### ● **Lankidetzan aritzeko betebeharra**

Arestian aipatu bezala, Adierazpena onartzerakoan lankidetzan aritzeko betebeharra zehaztu gabe utzi zen erabat. Ostera, Hitzarmen Proiektuak lankidetzan aritzeko betebeharra zertan datzan jasotzen du modu zehatzagoan, eta hori da, hain zuzen, hitzarmenean eransten den arau garrantzitsuenetarikoa. Zirriborroan estatuen arteko eginbeharrak praktikan jartzeko arau zehatzagoak jasotzen dira.<sup>126</sup>

Adierazpena onartzerakoan gai eztabaidatsua izan zen, eta orain, Hitzarmen Proiektuaren eztabaidetan bere horretan jarraitzen du. “Garapen bidean” dauden herrialdeek desberdinkeria globalei eusteko nazioarteko lankidetzaren garrantzia aldarrikatzen dute. Ordea, Mendebaldeko herrialdeak ez dute ideia hori arau zehaztuta onartu nahi, ez baitu merkatu-librearekin, kapitalismoarekin eta ideia neoliberaletan bat egiten.<sup>127</sup> Aurretik aipatu den Garapen Eskubideari buruzko Lan Taldearen 20. bilkuran, non estatuek, hitzarmenean jaso behar ziren kontuak azaldu zituzten, gerora, errelatore bereziak proiektua idatz zezan, argia izan zen herrialdeek agertutako jarrera kontrajarriak. Hain zuzen, Europar Batasunak eta Suitzak, estatuen betebeharraren jarri zuten arreta. Horien arabera, herrialdeek, beren barne mugetan eskubideak betetzeaz eta garapena sustatzeaz arduratu behar dira, baina ez dute nazioarteko lankidetzaren garrantzia aipatu. Beste zenbait estatuk, ordea, nazioarteko

<sup>122</sup> Nazio Batuak, Asanblada Nagusia “Declaración sobre el derecho al desarrollo”, 41/128 Ebazpena (1986ko abenduaren 4koa), 4.1 art.

<sup>123</sup> Hitzarmenaren arabera, nazioarteko erakundea tratatu batez edo nazioarteko arauetan oinarritzen den beste tresna juridiko batez eratzen den eta berezko izaera juridikoa duen elkarte da (2.a. art.).

<sup>124</sup> Teshome, Roman, *op. cit.*, 22. or.

<sup>125</sup> *Ibidem*, 23. or.

<sup>126</sup> *Ibidem*, 19. or.

<sup>127</sup> Ibhawoh, Bonny, *op. cit.*, 22. or.

lankidetzaren beharra gorai patzen dute, garapenerako baldintza gisa, eta hitzarmenak, zera jaso dezala azpimarratu dute, hala nola, Lerrokatu Gabeko Herrialdeen Mugimendua, Afrikako Estatu Taldea, Lankidetzaren Islamikoaren Elkarteak, Egipto, Etiopia, Angola, India, Pakistan eta Azerbaijan.<sup>128</sup> Azkenean, Aritzen taldeak, lankidetzaren aritzeko betebeharra jaso zuen bilkura horren ostean prestatutako zirriborroan. Jarraian aztertzen dira zehazki proiektuak jasotako xedapenak.

Hitzarmenaren Proiektuaren arabera, lankidetzaren aritzeko betebeharra erronka ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenekoei aurre egiteko, bizi baldintza hobek bultzatzeko eta giza eskubideen egikaritzea sustatzeko jasotzen da (13.1 art.). Horretarako, estatuak garapenerako eskubidea egikaritzeko mesedegarriak diren nazioarteko neurriak hartu behar dituzte, bakarka edo batera, lankidetzaz (13.2 art.).

Hala ere, garrantzitsua zera da, Hitzarmenak lankidetzaren aritzeko betebeharra egikaritzeko ekintzen zerrenda ez itxia (*inter alia*) jasotzen duela, zeinari jarraiki estatuak merkatu sistema multilateral bidezkoa, eta “garapen bidean” dauden herrialdeei mesedegarria zaiena, bultzatu behar duten (14.4.a. eta 14.4.b. art.). Horrekin, nazioarteko orden ekonomiko eta sozial bidegabeari eusten zaio. Estatu boteretsuei onuragarria zaien eta “garapen bidean” dauden herrialdeen interesen kontrako den merkatu sistemaren egiturazko arazoak aintzatesten direla ematen du.<sup>129</sup>

Bestetik, lankidetzaren aritzeko betebeharra egikaritzeko, hitzarmenaren arabera finantza-merkatu eta -erakundearen arautzeari eutsi behar zaio (14.4.c) eta “garapen bidean” dauden herrialdeek zeresan berezia izan behar dute erabakiak hartzeko prozesuetan (14.4.d). Zalantzarikoa da, baina, neurri horrek irismen handia izango duenik, finantza-erakundearen boto sistema antidemokratikoa kontuan izanda.<sup>130</sup> Hortaz, Hitzarmenaren arau hauek horiek egi bihurtzeko nazioarteko erakundearen egiturazko aldaketak eman beharko liriteke. Gainera, Hitzarmenak, Garapenerako Laguntza Ofiziala eta finantza fluxuak gehien behar duten herrialdeetara bideratu dadila sustatzen du –ez du, ordea, behartzen– (14.4.e. art.).<sup>131</sup>

Beraz, Hitzarmen Proiektuak finantza eta ekonomia sistema bidezkoago bat ezar dadila galdatzen du, “garapen bidean” dauden eta “ez hain garatuta” dauden herrialdeei berariazko arreta jarritz. Horrela, Nazioarteko Orden Ekonomiko Berriranzko aurrerapausoa ematen da. Hala ere, baikorregia izango litzateke xedapen horiekin NOEB erabat lortuko litzatekeela sinestea, Hitzarmenak ez baititu estatuak ondasunen transferentzia edo birbanaketa burutzerak behartzen, ez eta botere politiko eta ekonomiko desorekatu eta desberdintsua argi eta garbi adierazten.<sup>132</sup>

<sup>128</sup> Nazio Batuak “20º período de sesiones” A/HRC/42/35, *op. cit.*

<sup>129</sup> Teshome, Roman, *op. cit.*, 20. or.

<sup>130</sup> Munduko Bankuan eta Nazioarteko Diru Funtsean estatuaren kuoten araberako boto sistemari jarraitzen zaio, zera da, estatuaren boto ahalmena, beren kapital ekarpenaren araberako da. Sarfaty, Values in Translation: Human Rights and the Culture of the World Bank, (2012), 52. or., eta Houtven, Governance of the IMF: Decision Making, Institutional Oversight, Transparency, and Accountability, (2002), 5. or. Hemen ikusita: Teshome, Roman, *op. cit.*, 20. or.

<sup>131</sup> Teshome, Roman, *op. cit.*, 21. or.

<sup>132</sup> *Ibidem*, 19. or.

Horrekin guztiarekin esan daiteke Hitzarmenak nazioarteko lankidetzari dagozkion xedapen zehatzagoak jasotzen baditu ere, ez dituela guztiz argiak diren betebeharrak jasotzen, eta, beraz, lege arauak jasotzea baino politikan kontuan hartzekoak diren gidak jasotzen dituela.<sup>133</sup>

Azkenik, nazioarteko lankidetzaz ari garenenan, Hitzarmen Proiektuak aintzatestekoa den berritasun bat barneratzen du, hain zuzen, hego-hego lankidetzaren ereduak jasotzen duela. Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko lankidetzaren soila gaintzen du, eta hegoalde-hegoalde lankidetzaren eta lankidetzaren triangularra<sup>134</sup> ere barnebiltzen ditu. Ipar-hego, hego-hego eta lankidetzaren triangularra hobetu behar direla jasotzen du (13.4.f art.).<sup>135</sup>

Hego-hego lankidetzaren, Lerrokatu Gabeko Estatuaren Mugimenduen eskutik jaio zen, helburu amankomun batekin: beren garapenaren interes propioak gauzatzea eta euren arteko lankidetzaren bultzatzea. Hego-hego lankidetzaren arazo komunak dituzten herrialdeen arteko harreman zuzen eta horizontaletan oinarritzen da.<sup>136</sup> Lankidetzaren eredu horrekin, hegoaldearen negoziazio-boterea indartu nahi da, interes propioak autonomia handiagoaz defendatu ahal izateko.<sup>137</sup> Nazio Batuen Asanblada Nagusiari jarraiki, hego-hego lankidetzaren, Hegoaldeko herrialdeen arteko elkartasunaren aldeko keinua da, herrialdeko ongizatea eta autosufizientzia hobetzeko. Horiek subiranotasunaren errespetuaz, berdintasunaz, baldintzarik gabe, eta injerentziarik gabe gauzatu behar direlarik.<sup>138</sup>

Horrelako lankidetzaren eredu oso mesedegarria izan daitekeela esaten da. Hala ere, kontuan hartu behar da lankidetzaren mota hori ere, garapenerako eskubidearen ikuspegitik gauzatu behar dela. Zera da, ikuspegi ekonomizista gaintzen duen garapena bilatu behar dela eta giza eskubidearen egikaritzaren erdigunean egon behar dela. Bestela, garapenaren eskubidearen aurkakoa den lankidetzaren burutu daiteke, adibidez, beste arazo batzuk azalera daitezkeelako, hala nola, Hegoaldeko herrialdeen arteko harreman botereak edota tokiko eliteen nagusitasuna edota gizarte zibilaren parte-hartze falta.<sup>139</sup>

- **Norbanakoen eta Sektore Pribatuaren betebeharrak**

Hitzarmenak norbanakoen eskubidea sustatzeko betebeharrak mantentzen du (1. art.). Hitzarmenaren xede gisa jasotzen da, hain zuzen, pertsona oroko garapenerako eskubidearen egikaritzaren sustatu behar dela. Baina horrez gain, pertsonen, bai fisikoen zein juridikoen, betebeharrak negatiboak jasotzen dira. Hitzarmenaren xedapenei jarraiki, pertsona fisiko eta juridikoek ezin dute hitzarmenaren aurkakoa den egintzarik burutu, zera da, garapenerako eskubidea urratzen duen ezein ekintza egiteari uko egin behar diote (7. art.).<sup>140</sup>

<sup>133</sup> *Ibidem*, 22. or.

<sup>134</sup> Lankidetzaren triangularra “garatutako” herrialde batek, edo erakunde multilateral batek teknikoki edo ekonomikoki lagundutako Hegoaldeko herrialdeen arteko lankidetzari esaten zaio. Hemen ikusita: Menes, Danthe (2016) “El derecho al desarrollo y la cooperación sur-sur. El caso de América Latina: Brasil y México como potencias emergentes.” (Tesis doctoral), Universidad Autónoma de Madrid, Madrid, 120. or.

<sup>135</sup> Nazio Batuen, “Draft Convention...” A/HRC/WG.2/21/2, *op. cit.*

<sup>136</sup> Menes, Danthe, *op. cit.*, 115. or.

<sup>137</sup> *Ibidem*.

<sup>138</sup> *Ibidem*.

<sup>139</sup> Nazio Batuen, Asanblada Nagusia “Derecho al desarrollo. Nota del Secretario General”, A/73/271 (2018ko uztailaren 30ekoa).

<sup>140</sup> Nazio Batuen “Draft Convention...”, A/HRC/WG.2/21/2, *op. cit.*



1986ko Adierazpenaren analisisian azaldu den bezala, garai hartan faltan bota zen subjektu horien betebeharreri buruzko xedapen zehatzagorik ez jasotzea, batez ere enpresa transnazionalena, jakina baita eragin itzela dutela garapenerako eskubidearen egikaritzan. Oraingoan, ordea, pertsona juridikoen betebeharrak negatiboak enpresa transnazionaleri ere aplikagarri zaie. Hala eta guztiz ere, Hitzarmen Proiektuak kontu horren inguruan jasotzen duen edukia eskasa da oraindik. Izan ere, gai horri hitz gutxi eskaintzen zaizkio, ez da zehazten beren betebeharrak nola egikaritu behar diren, hots, ez dira betebeharrak martxan jartzeko zehaztasunik jasotzen, eta, horrela, subjektu horien eginbeharrak beren borondatearen arabera gauzatzen dira.<sup>141</sup> Eskubide horren egikaritzea, baina, ez da egi bihurtuko enpresa transnazionaleri beren giza eskubideen urraketengatik kontu-ematea eskatzen ez zaien bitartean. Horregatik, funtsezkoa litzateke betebeharrak horiek hobeto jasotzea eta gehiago garatzea.<sup>142</sup>

### 3.2.3. Hitzarmen Proiektuaren balio juridikoa eta egikaritzea

Garapenerako Eskubideari buruzko Hitzarmenaren Proiektuak bere aintzindariarekiko agertzen duen ezberdintasun nagusia bere izaera loteslea da. 1986ko Adierazpena aztertu denean, tresna horren lotesletasun falta agerian geratu da. Garapenerako eskubidea Hitzarmenizaerako tresna batean jasotzeak, baina, lotesle bihurtuko luke hori berresten duten estatuentzat.<sup>143</sup>

Horrez gain, Hitzarmenak, bere aintzindariak ez bezala, eskubidearen egikaritzaren jarraipena egiteko organoak aurreikusten ditu. Alde batetik, Estatu Alderdien Konferentzia ezarriko da (24.1. art.), estatu alderdien ordezkariak osatuko den organo politikoa.<sup>144</sup> Horrek, Hitzarmenaren benetazko egikaritzea burutzen dela ikuskatu beharko du. Horretarako, estatuek egindako informeak aztertu, estatuen jardunbide egokiak jaso, eskubidearen egikaritzari buruzko txostenak egin eta gomendioak eman beharko ditu, besteak beste (24.2. art.). Bai eta Hitzarmenaren Protokoloak burutu ahal izango ditu (25. art.).

Bestalde, hitzarmenaren egikaritzea modu ez zigorgarrian ikuskatzen eta sustatzen dituen adituen organo bat ezarriko da. Organo horren osara Estatu Alderdien Konferentziak erabakiko du bere lehenengo bileran (26.1.art). Hitzarmenean ez da zehazten organoaren izaera nolakoa izan behar duen, horrela Estatu Alderdien Konferentziari malgutasunez erabaki dezala uzten zaio.<sup>145</sup> Hori bai, organoaren kideen artean geografia, zibilizazio eta generoezberdinetako ordezkariak egon beharko dira (26.2. art.).

<sup>141</sup> Kamga, Serges (2018) "Realizing the right to development: Some reflections" History Compass; e12460, 7. or.

<sup>142</sup> *Ibidem*, 8. or.

<sup>143</sup> 1969ko Tratatuari buruzko Vienako Tratatuan, Hitzarmenaren izaera loteslea jasotzen da. 26. artikuluan arabera, "Hitzarmenak, hura berretsi duten estatuentzat lotesleak dira, eta fede onez bete behar dituzte". Eskuardean dugun Garapenerako Eskubideari buruzko Hitzarmenari, Vienako Konbentzioaren arauak aplikagarri zaizkio, tresna horretan jasotzen den "hitzarmen"aren kontzeptuarekin bat egiten duelako. Vienako Tratatuaren 2. artikuluan arabera "Hitzarmena" estatuek idatziz adostu duten, eta nazioarteko legeriari jarraiki onartzen den tresna da. Beraz, horri jarraiki, Garapenerako Eskubideari buruzko Hitzarmena, onartuz gero, loteslea litzateke.

<sup>144</sup> Teshome, Roman, *op. cit.*, 23. or.

<sup>145</sup> Nazio Batuak "Draft Convention ... with commentaries", A/HRC/WG.2/21/2/Add.1, 79. or.

Adituen organo horrek Hitzarmenaren interpretazioari buruzko gomendioak, egikaritzarako oztopoen ikuskapena edo Estatu Alderdien Konferentziak erabakitzen dituen bestelako eginkizunak bete beharko ditu (26.3. art.). Bai eta eskubidearen titularrek luzatzen dizkioten eskaeren inguruan erabaki ere, estatuak beren lankidetzan betebeharra gauzatu ez izanagatik eskubidearen gozamina urratu dutenean (26.3.c. art.). Xedapenari jarraiki, titularren eskaerak lankidetzan aritzeko betebeharraren inguruan izan daitezke soilik, baina Hitzarmenak ez du zehazten zein punturaino eskaerak lankidetzan aritzeko betebeharrarimugatzen zaizkion. Eta egia esan, horrek eskaera hori praktikan jartzea zailtzen du, ezbakarrik lankidetzan aritzeko betebeharra berez eztaibadan dagoelako, baizik eta zaila delako bereiztea eskubidearen gozamina lankidetzan aritzeko betebeharraren huts egiteagatik burutuden edo ez.<sup>146</sup>

Gainera, Hitzarmen Proiektuan ez da zehazten organo horren erabakiak zer nolako balio juridikoa izango duten. Hala ere, beste tratatu batzuen ikuskatze organoekin gertatzen den bezala, printzipioz ez lirateke lotesleak izango. Dena den, horrekin guztiarekin ikuskatze organoen aurreikuspena, adierazpenarekiko aurrerapuso bat eman dela esan daiteke.<sup>147</sup>

### 3.2.4. Hitzarmen Proiektuaren onurak

Arestian aipatutakoa kontuan izanda, esan daiteke Hitzarmen Proiektua Garapenerako Eskubidearen egikaritzarako erabakigarria izan daitekeela, loteslea izateaz gain, 1986ko Adierazpenak baino xedapen zehatzagoak jasotzen dituelako. Nahiz eta Hitzarmen Proiektua Adierazpenaren xedapenetan oinarritu den eta oinarrizko printzipioak mantentzen dituen, zenbait aldaketa eta elementu berri jaso ditu. Besteak beste, garapen jasangarria barnebildu du, estatuen betebeharrak eta lankidetzan aritzeko betebeharra era zehatzagoan jaso ditu, nazioarteko erakundeen betebeharrak gehitu ditu eta ikuskaritza organoak aurreikusten ditu. Arau zehatzagoak jasotzeak eskubidearen egikaritza errazten du. Beraz, Proiektua Adierazpenaren zenbait hutsune bete ditu. Hala ere, ukalezina da Hitzarmenak gabeziak ere dituela. Nolabait, lege arauak jasotzea baino politikan kontuan hartzekoak diren gidak jasotzen dituela ematen du.<sup>148</sup>

Funtsezkoa da honakoa kontuan hartzea: orain arte aipatutakoa, 2020ko urtarrilean proposatutako Lehenengo Hitzarmen Proiektuan oinarritzen da, Hitzarmenaren lehen zirriborroa alegia. Geroztik, Hitzarmenari buruzko negoziaketari ekin zaio, eta edukiari buruzko aldaketak emango daitezke. Izan ere, ez litzateke arraroa izango zirriborroan jaso diren zenbait xedapen etorkizunean mugatzea edo ezerezean gelditzea.

---

<sup>146</sup> Teshome, Roman, *op. cit.*, 24. or.

<sup>147</sup> *Ibidem.*

<sup>148</sup> *Ibidem.*

### 3.3. Hitzarmen Proiektuaren Berrikusketak

Arestian aipatu den Lehenengo Hitzarmen Proiektua, Garapenerako Eskubideari buruzko Lan Taldearen 21. eta 22. bilkuretan<sup>149</sup> aurkeztu zen. Bertan estatuak proiektuari buruzko iruzkinak egin zituzten, eta eztabaida horietatik abiatuta, Adituen taldeak Proiektuaren ale berrikusi bat<sup>150</sup> prestatu zuen (lehenengo Berrikusketak). Hori, Lan Taldearen 23. bilkurara<sup>151</sup> eraman zen 2022an. Hortatik, Proiektuaren bigarren alea<sup>152</sup> prestatu da (bigarren Berrikusketak), zeina 2023ko maiatzeko Lan Taldearen bilkuran aurkeztuko den.

Hitzarmen Proiektuaren berrikusketetan ez dira egiturazko aldaketarik eman, aldaketa txikiak baino. Beraz, ulertuko da aurretik, Hitzarmen Proiektuari buruz eman diren azalpenak aplikagarriak izaten jarraitzen dutela. Eta horrela, hurrengo atal honetan, berrikusketetan gehitu diren xedapenei edo aldaketa txikiei baino ez zaie helduko.

#### 3.3.1. Lehenengo Berrikusketak

Adituen taldeak prestatutako Hitzarmen Proiektuaren zirriborroa, esan bezala, Garapenerako Eskubideari buruzko Lan Taldearen 21. eta 22. bilkuretan aurkeztu eta eztabaidatu zen. Bilkura horietan, estatu askok, proiektuarekiko adostasuna eta oniritzia eman zuten; beste zenbait estatu ordea, hitzarmenaren aurka agertu ziren.

Europar Batasuna, berriro ere, Hitzarmen bat onartzearen aurkako jarrera azaldu zuen, bere iritziz, hitzarmena ez baita garapen jasagarria lortzeko biderik aproposena. Gainera, bere arabera, Hitzarmenak ez du Europar Batasunaren garapenari buruzko ikuspegiarekin bategiten, eta tresna hortan ez zaie estatuen barne betebeharrak behar bezala eusten; hots, estatuen lurraldez kanpoko betebeharrak buruzko adierak lausoak dira, eta ez dira estatuen betebeharrak zerrendatzen.<sup>153</sup> Mexikok ere Hitzarmen bat onartzearen beharra zalantzan jartzen du, bere aburuz, bertan jasotzen diren xedapenak bestelako nazioarteko tresna juridikoetan jasotzen direlako jada.<sup>154</sup> Txilek, bere aldetik, Hitzarmenaren eztabaida hasiaurretik, hori onartzearen beharren inguruko adostasuna lor dadila funtsezko baldintza gisa azpimarratzen du.<sup>155</sup>

---

<sup>149</sup> Nazio Batuak, Asanblada Nagusia “Informe del Grupo de Trabajo sobre el Derecho al Desarrollo acerca de su 21er período de sesiones (Ginebra, 17 a 21 de mayo de 2021)”, A/HRC/48/64 Ebazpena (2019ko ekainaren 25ekoa); eta Nazio Batuak, Asanblada Nagusia, “Informe del Grupo de Trabajo sobre el Derecho al Desarrollo acerca de su 22º período de sesiones (Ginebra, 22 a 26 de noviembre de 2021)”, A/HRC/51/38 Ebazpena (2022ko ekainaren 27koa).

<sup>150</sup> *Ibidem*, “Proyecto de convención revisado sobre el derecho al desarrollo”, A/HRC/WG.2/23/2 Ebazpena (2020ko apirilaren 6koa).

<sup>151</sup> *Ibidem*, “Informe del Grupo de Trabajo sobre el Derecho al Desarrollo acerca de su 23er período de sesiones (Ginebra, 16 a 20 de mayo de 2022)”, A/HRC/51/39 Ebazpena, 2022ko uztailaren 7koa).

<sup>152</sup> *Ibidem*, “Segundo texto revisado del proyecto de convención sobre el derecho al desarrollo”, A/HRC/WG.2/24/2 Ebazpena (2022ko azaroaren 30ekoa).

<sup>153</sup> Nazio Batuak, “21er período de sesiones”, A/HRC/48/64, *op. cit.*, 11. paragrafoa; eta Nazio Batuak, “22º período de sesiones”, A/HRC/51/38, *op. cit.*, 12. paragrafoa.

<sup>154</sup> *Ibidem*, “21er período de sesiones”, A/HRC/48/64, *op. cit.*, 19. paragrafoa; eta Nazio Batuak, “22º período de sesiones”, A/HRC/51/38, *op. cit.*, 23. paragrafoa

<sup>155</sup> *Ibidem*, “21er período de sesiones”, A/HRC/48/64, *op. cit.*, 15. paragrafoa; eta Nazio Batuak, “22º período de sesiones”, A/HRC/51/38, *op. cit.*, 19. paragrafoa.

Eztabaidetan parte hartzen duten estatu gehienek, ordea, hitzarmenaren aldeko jarrerak erakutsi dituzte.<sup>156</sup> Nahiz eta edukiari buruzko zenbait kontu borobiltzeko tirabiran aritu, eztabaidetan parte hartzen jarraitzeko, eta azkenean Hitzarmena onartzeko asmoa duteladirudi. Eztabaidetan honako gaiak aipatu ziren, besteak beste: “garapenaren” definizio falta; kolonialismoak eta neokolonialismoak eragindako desberdinkerien aipamenaren garrantzia; lankidetzaren aipamena jasotzeko garrantzia; hezkuntza, osasuna, janaria, etxebizitza eta enplegua besteko oinarrizko zerbitzuen aipamena jasotzea; “estatu garatuek” “garapen bidean” dauden estatuei jartzen dizkieten neurri hertsatzaileak; desarmatzearen xedapenarekiko erresistentzia; kanpoko-zorren inguruko aipamena egitea; eta bidegabeko finantza fluxuen aipamena jasotzeko beharra.<sup>157</sup>

21. eta 22. bilkuretako eztabaidetan oinarrituta, Errelatore Bereziak hurrengo bikurarako Proiektuaren ale berrikusi bat aurkeztu behar zuela adierazi zuen.<sup>158</sup> Beraz, horrekin guztiarekin, Adituen taldeak, berrikusketa prestatzeari ekin zion. Azkenean, 2022ko apirilean, berrikusketa hura argitaratu zen,<sup>159</sup> eta bertan, herrialdeek egindako zenbait iruzkinei jarraitu eta elementu berri batzuk jaso ziren.

Lehenengo aldaketa printzipioei dagokiena izan da. Lehenengo Proiektuan, esan bezala, Hitzarmena interpretatzeko printzipio orokorrak jaso ziren testuaren lehenengo zatian. Berrikusketan, printzipioen xedapena mantentzen da, baina printzipioen zerrendari kontu berriak gehitzen zaizkio. Alde batetik, garapena giza eskubideen gozamenerako baldintza dela jasotzen da, pertsonen eta herrien bizi-maila eta ongizatea hobetzeko balio behar duen heinean (3.d. art.). Bigarrenik, nazioarteko arauetan ezartzen den lankidetzan aritzeko betebeharra ezinbestekoa da eskubide horren egikaritzarako (3.e. art.). Hirugarrenik, garapen jasangarriari buruzko adiera osotzen da. Aurrekoan, garapen jasangarriaren eta garapenerako eskubidearen egikaritzaren elkarrekotasuna jasotzen zen, zera da, bata ezin zela bestea barik bete, hots, garapenerako eskubidearen egikaritzea jasangarritasunaren errespetuaz burutubehar zen, eta alderantziz. Oraingoan, ordea, adiera osoago bat jasotzen da, garapen jasangarriaren hiru alderdiez aritzen da, ekonomikoa, soziala eta ingurunekoa, eta garapena hiru alderdi horien orekaz eta naturarekiko harmoniaz burutu behar dela aipatzen da, eguneko eta etorkizuneko belaunaldien beharrak asetuz (3.g. art.). Azkenik, hego-hego lankidetzari aurrekoan baino oraindik eta garrantzia handiagoa ematen zaio. Lankidetzaren mota hori hasierako Hitzarmen proiektuan jasotzea berritasuna izan zen jada. Berrikusketan, gainera, hego-hego lankidetzaren indar handiagoarekin jasotzen da, Hitzarmena interpretatzeko

---

<sup>156</sup> 21. bilkuran hitzarmenaren onarpenaren aldeko adierazpenak egiten dituzten estatuak: Lerrokatu Gabeko Estatuen Mugimendua, Lankidetzaren Islamikoaren Elkarteak, Txina, Kuba, Sri Lanka, Burkina Faso, India, Venezuela, Brasil, Pakistan, Azerbaijan, Errusia, Lao, Filipinak, Argentina, Nepal, Namibia, Siria. Nazio Batuek, “21er período de sesiones”, A/HRC/48/64, *op. cit.*

22. bilkuran hitzarmenaren onarpenaren aldeko adierazpenak egiten dituzten estatuak: errokatu Gabeko Estatuen Mugimendua, Lankidetzaren Islamikoaren Elkarteak, Egipto, Iran, Nigeria, Hegoafrika, India, Venezuela, Pakistan, Azerbaijan, Bangladesh, Panama. Nazio Batuek, “22º período de sesiones”, A/HRC/51/38, *op. cit.*

<sup>157</sup> Nazio Batuek, “21er período de sesiones”, A/HRC/48/64, *op. cit.*; eta Nazio Batuek, “22º período de sesiones”, A/HRC/51/38, *op. cit.*

<sup>158</sup> *Ibidem*, “22º período de sesiones”, A/HRC/51/38, *op. cit.* 67. paragrafoa.

<sup>159</sup> *Ibidem*, “Proyecto de convención revisado...”, A/HRC/WG.2/23/2, *op. cit.*

printzipioen artean jasotzen baita. Zera da, hitzarmena egikaritzekoan, hego-hego lankidetzaren ipar-hego lankidetzaren osagarria dela ulertu behar da (3.a. art.).<sup>160</sup>

Bigarrenik, estatuen betebeharrei dagokienean, eztabaidetan kontu batzuk mahaigaineratu ziren, hala nola, zenbait estatuk Hegoaldeko herrialdeei jartzen dizkieten neurri hertsatzaileak beren garapen aukerak zapuzten dituztela, eta, beraz, debekatu beharko liraketela,<sup>161</sup> bai eta estatuen lurraldez kanpoko betebeharrak ez direla bat ere zehatzak.<sup>162</sup> Hortaz, Proiektuaren Berrikusketan xedapen berriak jasotzen dira, betebeharrak horiek zehatzagoak izateko nahian. Alde batetik garapenerako oztopoak ezabatzeke eta eskubidearen egikaritzea burutzen dela ikuskatzeko estatuen lankidetzaren burutu behar dutela (8.2. art.); bestetik, estatuek ezin dutela gainerako herrialdeen garapen prozesua zapuzten duten egintzarik burutu (8.3. art.); eta, azkenik, estatuen lurraldez kanpoko betebeharrak aipamena ezabatzen da (10.a. art.).<sup>163</sup>

Lan Taldearen 21. Bilkuran proposatu zenari jarraiki<sup>164</sup>, estatuek honako arlo hauetan neurriak hartu behar dituztela ezartzen da: oinarrizko balibideetan, hezkuntzan, osasun zerbitzuetan, elikagaietan, etxebizitzan, enpleguan eta diru-sarreretan, pertsona guztiek eskuratzeko ahalmen bera dutela ziurtatzeko (12.2. art.).<sup>165</sup> Horrelako xedapena erantsi izana ez da gauza hutsala; izan ere, heziketan eta osasun zerbitzuetan egiten diren gastuak pertsonen ongizaterako erabakigarriak dira.<sup>166</sup> Gizarte-babes unibertsala ezartzea eta denontzako gizarte-segurantzarako sarbidea ziurtatzea pertsonak erdigunean jartzen dituen justizia soziala lortzeko oinarria da. Horren bidez, pobrezia aurre egiten zaio eta desberdintasunei eusten zaie.<sup>167</sup>

Hirugarrenik, garapenerako eskubidearen egikaritzean eragin handia eduki dezakeen xedapen berri bat jasotzen da, hain zuzen bidegabeko finantza fluxuena (13.4.j. art.). Gai horri eusten diogunean, funtsezkoa da zera kontuan hartzea: bidegabeko era horretan mugitzen diren fluxuak, sozialki eraginkorragoa izan litekeen eran erabiltzeko aukera galtzen da. Zenbateko horiek desberdinkeria eta pobrezia aurre egitera, eta pertsonen bizi-maila hobetzera bideratuko balira, eragina itzela izango litzateke, batez ere, “garapen bidean” dauden herrialdeetan. Horregatik, garapenari ari garenean premiazkoa da bidegabeko finantza fluxuei hurbiletik begiratzea.<sup>168</sup> Garapenerako Eskubideari buruzko Proiektuaren berrikusketak, zentzu horretan, aurrerapauso handia eman duela esan daiteke, estatuek fluxu horiei eusteko lankidetzaren burutu behar dutela jasotzen baitu.<sup>169</sup> Ildo berean, ustelkeriari eusteko betebeharrak jasotzen duen artikulua berri bat agertu da, fenomeno horrek garapenerako eskubidearen

---

<sup>160</sup> *Ibidem*.

<sup>161</sup> Nazio Batuen “20º período de sesiones ...”, A/HRC/42/35, *op.cit.*, 16., 19., 25., 32., 66. eta 86. paragrafoak.

<sup>162</sup> *Ibidem*, “21er período de sesiones”, A/HRC/48/64, *op. cit.*, 11. eta 47. paragrafoak; eta Nazio Batuen, “22º período de sesiones”, A/HRC/51/38, *op. cit.*, 12. eta 55. paragrafoak.

<sup>163</sup> *Ibidem*, “Proyecto de convención revisado...”, A/HRC/WG.2/23/2, *op. cit.*

<sup>164</sup> *Ibidem*, “21er período de sesiones”, A/HRC/48/64, *op. cit.*, 47 paragrafoa.

<sup>165</sup> *Ibidem*, “Proyecto de convención revisado...”, A/HRC/WG.2/23/2, *op. cit.*

<sup>166</sup> *Ibidem*, 41. or.

<sup>167</sup> Lanaren Nazioarteko Erakundea (2021) “Informe Mundial sobre la Protección Social 2020-2022: La protección social en la encrucijada: en busca de un futuro mejor” Oficina Internacional del Trabajo, Ginebra, 19.or.

<sup>168</sup> Global Financial Integrity (2019) “Illicit Financial Flows to and from 148 Developing Countries: 2006-2015”, 14. or.

<sup>169</sup> Nazio Batuen “Proyecto de convención revisado...”, A/HRC/WG.2/23/2, *op. cit.*

egikarritza oztopatzen duelakoan (18. art).<sup>170</sup> Eta, zentzu horretan, honako xedapena garrantzia handikoa da, ustelkeriaz mugitzen diren zenbateko guztiak ere garapena gauzatzera bideratu litezkeelako. Azkenik, “garapen bidean” dauden herrialdeen garapen prozesua itzeloztopatzen duen gaia dugu, hau da, kanpo-zorrarena. Garapenerako Eskubideari buruzko Lan taldearen bilkuretan, zenbait herrialdek behin baino gehiagotan adierazi dute hitzarmenean kanpo-zorraren kontua barnebiltzearen garrantzia;<sup>171</sup> eta azkenean, Proiektuaren lehenengo berrikusketa horretan zorra maneiatzeko neurriak har daitezela jasotzen da (13.4.k. art.).<sup>172</sup>

Azkenik, emakumeei buruzko artikuluari buruz, Hitzarmenaren Proiektuan jasotzen zena mantentzen da, oro har, artikularen izenburua izan ezik, “genero berdintasuna” esan beharrean, “emakume eta gizonen arteko berdintasuna” esaten duelako. Zenbait estaturen aburuz, “genero” hitzak nahastea sor zezakeen.<sup>173</sup> Gainera, artikulua horri hezkuntzaz eta emakumeen bakeari buruzko agendaz aritzen diren bi artikulua gehitzen zaizkio. Alde batetik, emakumeen garapenerako eskubidearen gozamina ziurtatuko duen hezkuntza zerbitzu bidezkoak ematen direla bermatu behar da (16.2.f art.); eta, bestetik, emakume eta bakea eta segurtasunari buruzko agendak egi bihurtu behar dira, bai eta emakumeen parte hartzea sustatu bakearen mantentzean eta gatazken konponketan (16.2.g art.).<sup>174</sup>

### 3.3.2. Bigarren Berrikusketa

Arestian azaldu den Hitzarmen Proiektuari buruzko lehen berrikusketa, Garapenerako Eskubideari buruzko Lan Taldearen 23. bilkuran aurkeztu zen, eta berriro ere, estatuak ale horren inguruko iruzkinak aurkeztu zituzten.<sup>175</sup> Estatuaren komentarioak kontuan hartuz, Adituen taldeak, 2022ko azaroan, Hitzarmen Proiektuaren Bigarren Berrikusketa<sup>176</sup> bat prestatu zuen, eta ale horri buruzko eztabaida Lan Taldearen 24. bilkuran burutuko dela aurreikusten da.<sup>177</sup>

Bigarren berrikusketa horretan, lehenengo berrikusketaren alearekiko ezberdintasun gutxian daitezke. Lehenik eta behin, aipatzekoa izan daiteke garapenaren kontzeptuaren ulermen gero eta zabalagoa jasotzen dela, garapen jasangarriaren hiru alderdiak (ekonomikoa, soziala eta ingurunekoa) jasotzea baino, orain, garapenaren alderdi “guztiak” jasotzen baitira (3.g. art.). Bigarrenik, hego-hego lankidetzaren aipamena mantentzeaz gain, bigarren berrikusketan lankidetzaren triangularra ere jasotzen dela, beraz, ipar-hego lankidetzaren eredu bakarrarekin hausten joaten dena esan daiteke 3.j. art.). Hirugarrenik, lankidetzaren betebeharraridagokionean, betebeharren zerrenda luzatzen jarraitzen da. Alde batetik, aldaketa klimatikoaren egoera geroz eta latzagoei aurre egin behar zaiela gogoan hartuz, fenomeno horren eraginaren aurrean egoera zaurgarrienean daudenei, eragin horiei aurre egitera lagundu

---

<sup>170</sup> *Ibidem*.

<sup>171</sup> *Ibidem*, “22º período de sesiones”, A/HRC/51/38, *op. cit.*, 13., 17., 45. eta 48. paragrafoak.

<sup>172</sup> *Ibidem*, “Proyecto de convención revisado...”, A/HRC/WG.2/23/2, *op. cit.*

<sup>173</sup> *Ibidem*, “22º período de sesiones”, A/HRC/51/38, *op. cit.*, 60. paragrafoa.

<sup>174</sup> *Ibidem*, “Proyecto de convención revisado...”, A/HRC/WG.2/23/2, *op. cit.*

<sup>175</sup> *Ibidem*, “23er período de sesiones”, A/HRC/51/39, *op. cit.*

<sup>176</sup> *Ibidem*, “Segundo texto revisado...”, A/HRC/WG.2/24/2, *op. cit.*

<sup>177</sup> Garapenerako Eskubideari buruzko 24. bilkura 2023ko maiatzaren 15 eta 19 bitartean burutuko dela aurreikusten da, lan hau entregatu baino 4 egun lehenago. Hori dela eta, lan honetan ez dago aukerarik estatuak bigarren berrikusketa honekiko dituzten jarrerak jasotzeko.

behar zaiela ezartzen du (13.4.h). Eta bestetik, armen fluxu ilizituei aurre egiteko lankidetzaz beharrezkoa dela jasotzen du (13.4.k).<sup>178</sup>

### 3.4. Hitzarmen Proiektuaren bideragarritasuna

1986an estatu boteretsuen erresistentziak zirela eta, ezinezkoa izango zatekeen Adierazpena onartu beharrean, hitzarmen bat onartzea. Izan ere, Adierazpenak hainbat estaturen oniritzia jaso izana bere izaera ez lotestearen ondorioa izan zen.<sup>179</sup> Ia 40 urte geroago, Hitzarmen Proiektua mahai gainean dagoelarik, interesgarria da proiektua aurrera jarraitzeak eta hitzarmena onartzeak nolako bideragarritasuna duten jakitea.

1986ko Adierazpenaren onarpenaz geroztik, hegemonia politiko neoliberalak tresna juridiko hori nahikoa dela defendatu du, zera da, ez dagoela Hitzarmena onartzeko beharrik. Horrela, ez zaie nazioarteko egitura bidegabea salatzen duen eta garapenerako eskubidea egikaritu dadila eskatzen duten aldarrikapen politizatuei espaziorik ematen. Izan ere, Agenda 2030ri berebiziko garrantzia ematen zaion testuinguru horretan, despoltizazio prozesu nabaria eman da, zeinak ez dien arretarik jartzen hegemonia neoliberalak mantendu nahi dituen eta gero eta gehiago handitzen ari diren egiturazko desberdinkeriei.<sup>180</sup>

Hitzarmen Proiektuari buruzko eztabaidetan, zenbait herrialdek, besteak beste, Europar Batasunak, Japoniak, Erresuma Batuak eta Suitzak Hitzarmena onartzearen aurkako jarrera azaldu dute argi eta garbi. Eta Garapenerako Eskubideari buruzko aldarrikapenak hasi zirenetik gertatu den bezala, “garapen bidean” dauden herrialdeak edo Hegoaldeko herrialdeak dira, batez ere, tresna horren onarpena bultzatu dutenak. Are gehiago, zenbait estatuk tresna juridiko berri horren onarpenaren berandutzearen inguruko kezak azaldu dituzte.<sup>181</sup>

Garapenerako Eskubideari buruzko Errelatore Bereziaren arabera, Proiektuaren inguruko negoziaketak ezin dira prozesu bukaezin batean bihurtu, eta proiektua Giza Eskubideen Kontseiluari lehenbailen aurkeztu behar zaiola azpimarratzen du, behin betiko negoziaketa eta onarpena Nazio Batuen Asanblada Nagusian eman dadin.<sup>182</sup> Hots, momentuan, Proiektuaren inguruko eztabaidak, Garapenerako Eskubideari buruzko Lan Taldearen baitan ematen ari dira. Baina, estatuak Hitzarmenaren berrespen, onarpen edo onespenera<sup>183</sup> burutu ahal izateko, lehenago edo beranduago, Hitzarmen Proiektuaren testua Asanblada Nagusian aurkeztu, eztabaidatu eta onartu behar izango da, eta orduan, eta bakarrik orduan, estatuak onartu ahal izango dute eta tresna horri lotuta geratuko dira.

<sup>178</sup> Nazio Batuak, “Segundo texto revisado...”, A/HRC/WG.2/24/2, *op. cit.*

<sup>179</sup> Mutua, Makau, *op. cit.*, 564. eta 603. orr.

<sup>180</sup> De Negri Filho, Armando (2022) “Tackling the ‘Planned Lack of Care’: Could a Right to Development Treaty Promote Universal Social Protection Systems?” *Society for International Development*, 65. zk., 4. or.

<sup>181</sup> Nazio Batuak, “21er período de sesiones”, A/HRC/48/64, *op. cit.*, 19. paragrafoa.

<sup>182</sup> *Ibidem*, “23er período de sesiones”, A/HRC/51/39, *op. cit.*, 57. paragrafoa.

<sup>183</sup> Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren arabera, estatuak bide ezberdinen bitartez lotu daitezke hitzarmeneta, besteak beste, berrespena, onarpena eta onespenera. Aztergai dagoen Garapenerako Eskubideari buruzko gai honetan, bereizketa horrek ez du garrantzia handirik, zuzenbidearen alderdi teknikoaren kontuak dira. Beraz, testua errazteko onarpen hitzaz termino guzti horiek bilduko dira.

Lana aurkezteko unean Garapenerako Eskubideari buruzko Hitzarmena onartzeko prozesuak irekita jarraitzen duenez, tresna horren bideragarritasunari buruzko baieztapen sendorik egitea oldarkorregia litzateke. Ordea, Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren arabera, tratatuak onartzeko jarraitzen ohi den prozedura aztertu eta, horrela, Hitzarmen honekin gertatu daitekeena sumatu daiteke.

Beraz, estatuak Hitzarmena onartu eta beren barne ordenamenduan barneratu ahal izateko, honakoa gertatu behar izango da: lehenik, aipatu den moduan, Garapenerako Eskubideari buruzko Hitzarmenaren testua Asanblada Nagusian aurkeztu beharko da, bertan eztabaidatu eta onartu. Nazio Batuen Gutunari jarraiki (18. art.), Hitzarmenaren testua bi hereneko gehiengoarekin onartu beharko da.<sup>184</sup> Eta ondoren, testuaren adostasuna eta onarpena lortuz gero, zera da, estatuen bi hereneko gehiengoaren adostasunaz onartuz gero, estatuak Hitzarmena onartzeko prozesua hasiko litzateke.

Hitzarmenaren onarpena, testu horrek berorrek zehazten duenari jarraiki burutu beharko da. Hitzarmen Proiektuaren azkenengo alearen arabera, hots, Garapenerako Eskubideari buruzko Hitzarmen Proiektuaren bigarren berrikusketa, Hitzarmenaren berrespena, onarpena edo onespina beharko da (29. art.), eta Hitzarmena indarrean sartuko da 20 estatu edo nazioarteko erakundek horrela onartzen dutenean (31.1 art.). Esan bezala, berritasun interesgarria da nazioarteko erakundeek hitzarmenera lotu ahal izatea. Printzipioz, 20 estatu edota nazioarteko erakunderen onarpenaren eskakizuna ez da oso zorrotza, hala ere, hurrengo urteetan ikusi beharko da babes nahikorik jasotzen duen. Eta, Hitzarmena behin indarrean dagoenean, hura berretsi nahi duen estatu edo nazioarteko erakundeentzat ere aukera hori zabalik geratuko da (29.3 art). Beraz, nahiz eta hasierako babes handirik ez jaso, babes hori zabaltzen joateko aukera egongo da.

Garapenerako Eskubideari buruzko Lan Taldearen baitan ematen ari diren eztabaidak oinarri, erreza litzateke bereiztea zein estatu agertuko diren Hitzarmenaren alde edo aurka. Hala ere, eztabaida horietan ez dute Nazio Batuetako estatu guzti-guztiek parte hartu. Hori dela eta, zaila da Asanblada Nagusiaren bozketan gerta daitekeena aurreikustea. Edozelan ere, azkenean, testua onartuko balitz, eta 20 estatu edo nazioarteko erakunderen onarpena jasoko balu, Hitzarmena indarrean sartuko litzateke. Alabaina, Garapenerako Eskubidearen muinean dagoen helburua lortzeko ez du balio edozelango onarpena izateak. Giza Eskubide hori egi bihurtzeko, Mendebaldeko herrialdeek beren iragan kolonialagatiko erantzukizuna hartu behar dute, eta nagusitasunezko leku batean jartzen dien eta desberdinkeriak iraunarazten dituen botere harremani buelta emateko prest agertu behar dira. Momenturarte baina, Mendebaldeko herrialde horiek ez dute Hitzarmena onartuko dutenaren zantzurik agertu; aitzitik, aurkako jarrera agertu dute, hau da, Hitzarmenaren edukiarekin edota Hitzarmena bera tresna aproposa denaren ideiarekin bat ez datozela.

Hitz gutxitan, Hitzarmenaren patua, estatuak eta nazioarteko erakundeek erabaki beharko dute, eta horri buruzko susmoak izan daitezkeen arren, benetako bilakaera ezagutzeko kontu horri hurbiletik jarraitu beharko zaio hurrengo urteetan.

---

<sup>184</sup> Nazio Batuak “Carta de las Naciones Unidas”, *op. cit.*



#### 4. Ondorioak eta amaierako hausnarketa

Lan honetan munduko desberdinkeriei eusteko balio dezakeen tresna baten azterketa burutu da, hain zuzen, Garapenerako Eskubidearena. 60ko hamarkadatik, Hegoaldeetako herrialdeek beren garapenerako eskubidea errespetatu dadila galdatu dute, eta horrela, pertsona ororen ongizate maila ziurtatzeko aproposa den nazioarteko ordena ezar dadila. Herrialde horiek Mendebaldeko herrialdeek beren iragan kolonialagatiko erantzukizuna har dezatela eskatzen dute, eta hegoaldean pobrezia eragiten duen egitura bidegabekoari buelta ematea.

Aldarrikapen horiek, 1986an, Garapenerako Eskubideari buruzko Adierazpenean jaso ziren. Baina, Adierazpenaren atalean aztertu denez, hutsune askotariko tresnatzat jo da. Alde batetik, ez zirelako garapenaren alorrean garrantzi handikoak diren zenbait gai batu, hala nola garapenaren alderdi ekologikoa, bada, garapen jasangarria; eta, emakumeen kontuari ez zitzaion berebiziko arretarik jarri. Bestetik, Mendebaldeko herrialdeen jarrera kontrajarriak izan zirela, eta giza eskubide horrekiko betebeharrak hain era lausoan jaso ziren, non, zaila litzateke inork eskubide hori egikaritzeko ardurarik bere gain hartzea. Edonola ere, betebeharrak dagokionean, batez ere, estatuak beren mugen barruan, beren herritarrekiko dituzten betebeharrak gailendu ziren, nahiz eta oso modu zehatzugabeen. Nazioarteko betebeharrak (Mendebaldearenak Hegoaldearekiko), lankidetzan aritzeko betebeharrari, nazioarteko komunitatearen betebeharrak eta sektore pribatuaren betebeharrak hitz gutxi eskaini zitzaizkien, eta, horrela, Garapenerako Eskubidearen funtsa galdu zen. Azkenik, Garapenerako Eskubidea, aipatu den moduan, izaera ez lotesleko tresna batean jaso zen, Nazio Batuen Asanblada Nagusiko Adierazpen batean, alegia. Hori dela eta, eskubide horren galdagarritasun eza dela eta, bere egikaritzea oraindik eta zailagoa izan da.

Horrekin, arestian egindako lehenengo ikerketa galderari erantzuten zaio. Galdera, Garapenerako Eskubidea betetzearen aukeraren ingurukoa zen, zehazki, gaur egungo formulatze juridikoarekin Garapenerako Eskubidea galdagarria den. Esan bezala, Garapenerako Eskubideari buruzko Adierazpena ez da galdagarria, Asanblada Nagusiaren Adierazpenak ez baitute izaera loteslerik. Eta kontuan hartuta, Garapenerako Eskubidearen Adierazpena gaurdaino giza eskubide hori jasotzen duen tresna nagusia dela, egungo, formulatze juridikoarekin ez dago eskubide horren betetzea galdatzerik.

Horrez gain, lanaren hirugarren atalean, azken urteotan, Garapenerako Eskubidearen inguruan eman diren azken bilakaeren azterketa burutu da. Hain zuzen ere, Garapenerako Eskubideari buruzko Hitzarmen proiektu bat onartze aldera aurrera eraman diren Hitzarmen Proiektuarena eta testu horren berrikusketena. Eta azterketa horretatik zera ondoriozta daiteke: Lehenengo Hitzarmen Proiektua bere aurrekaria baino testu askoz osoagoa da. Izan ere, Hitzarmen Proiektuan, Adierazpenaren gabeziak batzuei eutsi zaizkio. Esaterako, Proiektuan jasotzen den “garapenaren” ikuspegia zabalagoa da, eta garapen jasangarria barne hartzen du; emakumeen kontuari arreta handiagoaz eutsi zaio; eta betebeharrak dagokienean, askoz zehatzagoa da. Estatuak betebeharrak zorrotasun handiagoaz bildu dira; berritasun bezala, nazioarteko erakundeak betebeharrak jasotzen ditu, eta lankidetzan aritzeko betebeharrak ere gehiago zehazten da. Hala ere, ezin daitezke alde batera utzi Hitzarmen Proiektuaren edukia eztabaidatzeko bilkuretan, lankidetzan aritzeko betebeharren inguruan

jarrera kontrajarriak agertu direla, eta, beraz, berriro ere, giza eskubide horren funtsa kolokan jartzen dela. Edozelan ere, aipagarria da Hitzarmenak Adierazpenarekiko ezaugarri nabarmen bat barne biltzen duela, hain zuzen ere, Garapenerako Eskubidea loteslea bihurtu dezakeela. Hitzarmenak lotesle bihurtzen dira hura sinatzen duten estatuentzat, hortaz, Proiektua onartuz gero, eskubidea galdagarria izango da.

Lehenengo Hitzarmen Proiektutik abiatuta, berriki egin diren Hitzarmen Proiektu Berrikusiek, oro har, ez dute lehenengo testuarekiko sekulako aldaketarik egiten. Hala ere, lan honetan jaso direnez, Garapenerako Eskubidearen egikaritzarako mesedegarriak izan daitezkeen zenbait zehaztasun barnebiltzen dira. Adibidez, bidegabeko finantza fluxuen eta arma fluxuen kontua jasotzen da, bai eta ustelkeria arazoei eusteko beharra ere; gainera, “garapen bidean” dauden herrialdeen garapena oztopatzen duen kanpo-zorren kontuari eusten zaio. Horrez gain, oinarrizko baliabide eta zerbitzuak eskaintzeko garrantzia jasotzen da; gainera, “garapenaren” kontzeptuaren gero eta ulerkeria zabalagoa jaso da; eta, hego-hego lankidetzaren eta lankidetzatriangularraren aipamenak bildu dira.

Horrela, bigarren ikerketa galderari erantzunez (Adierazpenaren eta Hitzarmen Proiektuaren aldeari buruzkoa, eta, Hitzarmenak eztabaidagunean egondako gaiak argitzen dituenari buruzkoa), Hitzarmen Proiektuak, eta bere berrikusketek, Adierazpenaren zenbait hutsune betetzen dute. Oro har, tresna osoagoa da eta xedapen zehatzagoak jaso ditu. Hala ere, zehaztasun falta izateagatik kritikak ere jaso ditu. Esaterako, lankidetzan aritzeko betebeharrari dagokionean, oraindik eta zorrotzagoa izatea galdatzen da. Horrek, lankidetzan aritzeko betebeharraren inguruko eztabaida argitu gabe dagoela islatzen du. Dena den, batek galde dezake “baina, nori dagokio eztabaida hori argitzea, hitzarmenari ala esparru politikoari?” Hots, Hitzarmen Proiektua bera, berez, ez da gai eztabaidagunean dauden kontu guztiak argitzeko. Horretarako, lehenik eta behin, eztabaida politikoan adostasuna egon behar da; eta, ondoren, adostasun hori hitzarmenean jasoko da. Bestetik, Hitzarmenak, onartua izanez gero, Adierazpenarekiko agertzen duen alde nabarmenena bere izaera loteslea litzateke.

Hurrena, hirugarren ikerketa galderari lotuta (Hitzarmen Proiektua onartzeko aukeren ingurukoa), Hitzarmen Proiektuaren bideragarritasuna aztertu da. Ikusi da nola, Giza Eskubideen baitan ematen ari den Hitzarmen Proiektuari buruzko eztabaida, berandu baino lehen Nazio Batuen Asanblada Nagusira igaro beharko den. Eta, Asanblada Nagusian Garapen Eskubideari buruzko Hitzarmenaren testua onartuz gero, orduan estatuek eta nazioarteko erakundeek hura onartu ahal izango dute nazioarteko hitzarmena bihurtzeko. Hala ere, suposizioak baino ez badira ere, aipatu da, eskubide horren inguruko eztabaidak kontuan hartuta, testuaren onarpenak zailtasunei aurre egin behar izango diela. Onartzekotan, gaurdaino hitzarmenaren aurka agertu diren estatuek (Mendebaldekoek), ziurrenik, ez dute onartuko, eta, horrela, hitzarmenaren muina ezerezean geldituko da, Mendebaldekoherrialdeek ez dituztelako ardurarik hartuko hegoaldeko herrialdeetan garapena gauza dadin.

Azkenik, hirugarren ikerketa galderaren bigarren zatian, Garapenerako Eskubidearen Hitzarmenak onurarik ekarriko lukeen planteatu da. Kontu horren inguruan, dagoeneko aipatu da Hitzarmen batek Garapenerako Eskubidea loteslea bihurtuko lukeela. Batek pentsa dezake,

Hitzarmena onartu arren, estatuek hura errespetatu gabe jarduten jarraituko dutela, Nazioarteko Zuzenbide Publikoko hainbeste arauekin gertatzen den bezala. Eta beraz, berdin duela hura onartu edo ez. Hala ere, juridikoki, hitzarmena pisu handiagoko tresna da, eta Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren ikuspegitik arau lotesteak onartzeak, giza eskubideari gorputz sendoagoa ematen dio. Izan ere, Garapenerako Eskubidea galdagarria litzateke.

Garapenerako Eskubidea loteslea izatea, eta estatuak hura betetzeko konpromisoa hartzea ez litzateke gauza hutsala. Garapenerako Eskubidearen muinean, dagoeneko hamaika aldiz adierazi denez, desberdinkeria eragiten duten egiturak aldatzearen ideia dago. Mendebaldeko herrialdeek iragan kolonialagatiko eta orainaldi neokolonialagatiko erantzukizunez aritzea galdatzen da, eta Hegoaldeko herrialdeei berdinetik berdinerako tratua ematea. Interes beteriko Garapenerako Laguntza Ofizialean oinarritutako nazioarteko lankidetzaren lehenestea baino, dagozkien eskubideak itzultzea, beren garapenerako estrategia propioak burutzeko espazioa ematea. Eragingako kalte guztiengatik erantzutea, baina “limosna” itxurako laguntza ekonomikoak emateari uztea. Bi hitzetan, Garapenerako Eskubidea onartzea Hegoaldeetako herrialdeei lapurtu zaien lekua itzultzea litzateke.

Bukatzeko, lan honetan aztertzeke gelditu diren hainbat kontu aipatu behar dira. Izan ere, Master Amaierako Lan hau burutzeko ezarri diren mugak direla eta, alde batetik, luzeera, eta bestetik, denbora, Garapenerako Eskubideari buruzko azterketan interesgarriak litezkeen zenbait konturen analisisa alde batera utzi behar izan dira. Esaterako, honako hauek:

- Garapenerako Eskubideari buruzko Adierazpenaren eta Hitzarmen Proiektuaren azterketa sakonagoa genero ikuspegitik. Testu horiek onarpen prozesuetan genero ikuspegia noraino hartzen den kontuan, bai eta, eskubide horren egikaritzak emakumeengan eragina bereziak izan ditzakeen. Zoritxarrez, Garapenerako Eskubideari buruzko bibliografia genero ikuspegitik bilatu denean, emaitzak eskasak izan dira.
- Postgarapenaren teorien ikuspegitik, zeintzuk liratekeen Garapenerako Eskubideari buruz egingo liratekeen kritika nagusiak.
- Garapen jasangarri sendoaren ikuspegitik, Garapenerako Eskubideak alderdi ekologikoa era onesgarrian, ala ez jasotzen duen, hots, Garapenerako Eskubidearen aldarrikapenetan, garapen jasangarri ahularen edo sendoaren printzipioari so egiten zaion.
- Garapenerako Eskubidearen baitan jasotzen den bakearen ikuskera, bake positibo edo negatiboaren aldekoa den.
- Nola, lankidetzaren proiektuak, Garapenerako Eskubidea barnebilduz formulatu beharko liratekeen. Ildo horretan, interesgarria litzateke Garapenerako Eskubidearen egikaritzaranzko aurrerapausoa ematen duen lankidetzaren proiektu baten azterketa edo proposamena egitea.

Finean, “garapenaren” kontua, hain gai konplexu eta zabala denez aurreko zerrenda hori askoz luzeagoa ere izan liteke. Oraingoan, Garapenerako Eskubideari buruzko azterketa hemenbertan amaitzen da azkenengo gogoeta batekin, etorkizuneko ikerketetarako zabalik dagoela aintzatetsiz.

Garapenerako Eskubidea pertsona eta herrialde ororentzat egi bihurtzearen emaitza desberdinkeriarik gabeko mundu-gizarte bat lortzea litzateke. Eszenatoki hori bizi garen munduan irudikatzea zaila da oso. Bidegabekerien urrezko aroa dugu honakoa. Hala ere, funtsezkoa da Garapenerako Eskubidea ezagutarazten jarraitzea. Gutxinaka-gutxinaka Garapenerako Eskubidearen onarpeneranzko eta egikaritzaranzko pausuak ematea. Mugimendu sozialek, gobernuz kanpoko erakundeek, lankidetzan ari diren horiek, etab., Garapenerako Eskubidearen aldarrikapenak bere egin behar dituzte. Gobernuari eta nazioarteko erakundeei giza eskubide hori onartzera bultzatu behar zaie, eta isilaraziak izan diren hegoaldeko ahotseei, ostu zaien lekua itzuli behar zaie.

Oraindik, Garapenerako Eskubideari buruzko Hitzarmenaren etorkizuna ezezaguna zaigu. Eztabaida politikoan irekita dagoen kontua dugu. Hala ere, datorrena datorrela, ez da gizarte bidezkoago bateranzko aldarrikapenen bidea alde batera utzi behar. Garapenerako Eskubideari buruzko tresnek bidezkoitasun horretara heltzeko balio duen bitartean ezin da bere aldarrikapena alde batera utzi.

## Bibliografia

### Doktrina

- Alfarargi, Saad, Garapenereko Eskubideari buruzko Nazio Batuen Errelatore Berezia (2018) “Relator Especial de las Naciones Unidas sobre el Derecho al Desarrollo. Una introducción al mandato” *Nazio Batuak*. Eskuragarri hemen: [https://www.ohchr.org/sites/default/files/SRRightDevelopment\\_IntroductiontoMandate\\_SP.pdf](https://www.ohchr.org/sites/default/files/SRRightDevelopment_IntroductiontoMandate_SP.pdf) (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).
- Arts, Karin eta Tamo, Atabongawung (2016) “The Right to Development in International Law: New Momentum Thirty Years Down the Line?” *International Institute of Social Studies (ISS)*. Eskuragarri hemen: [https://www.researchgate.net/publication/309435995\\_The\\_Right\\_to\\_Development\\_in\\_International\\_Law\\_New\\_Momentum\\_Thirty\\_Years\\_Down\\_the\\_Line](https://www.researchgate.net/publication/309435995_The_Right_to_Development_in_International_Law_New_Momentum_Thirty_Years_Down_the_Line) (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).
- Beall, Katerine M. (2022) “The Global South and global human rights: international responsibility for the right to development” *Third World Quarterly*, 43:10 zk., 2337-2356. Eskuragarri hemen: [https://www.tandfonline.com/doi/pdf/10.1080/01436597.2022.2098711?casa\\_token=xEb9iPrhsTkAAAAA:15XnpQOBwAamsd0PV46dfm5z-Z6xHbHcL7u16JSDjhQ\\_rJlVDnfB1oBhxKov-KDiWIVM31cyPm3d](https://www.tandfonline.com/doi/pdf/10.1080/01436597.2022.2098711?casa_token=xEb9iPrhsTkAAAAA:15XnpQOBwAamsd0PV46dfm5z-Z6xHbHcL7u16JSDjhQ_rJlVDnfB1oBhxKov-KDiWIVM31cyPm3d) (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).
- Bohoslavsky, Juan Pablo; Cantamutto, Francisco; Clérico, Laura (2022) “IMF’s Surcharges as a Threat to the Right to Development” *Society for International Development*, 65. zk., 194–202. Eskuragarri hemen: <https://link.springer.com/article/10.1057/s41301-022-00340-5> (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).
- Chancel, Lucas (2022) “World Inequality Report 2022” *World Inequality Lab*. Eskuragarri hemen: [https://wir2022.wid.world/www-site/uploads/2021/12/WorldInequalityReport2022\\_Full\\_Report.pdf](https://wir2022.wid.world/www-site/uploads/2021/12/WorldInequalityReport2022_Full_Report.pdf) (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).
- Cobo, Rosa; De la Cruz, Carmen; Volio, Roxana; eta Zambrano, Ada (2009): “Cuadernos de género: Políticas y acciones de género. Materiales de formación” *Universidad Complutense, Instituto Complutense de Estudios Internacionales*, Madril.
- De Negri Filho, Armando (2022) “Tackling the ‘Planned Lack of Care’: Could a Right to Development Treaty Promote Universal Social Protection Systems?” *Society for International Development*, 65. zk., 186–193. Eskuragarri hemen: <https://link.springer.com/article/10.1057/s41301-022-00347-y> (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

- Hernández, Juan (2006) “Las empresas transnacionales españolas en América Latina. Los códigos de conducta como sistemas atípicos de regulación de las relaciones laborales” *Lan Harremanak*, 14. zk., 125-174.
- Kamga, Serges (2018) “Realizing the right to development: Some reflections” *History Compass*; e12460. Eskuragarri hemen: <https://uir.unisa.ac.za/bitstream/handle/10500/28045/Kamga-%20Realizing%20the%20right%20to%20development%20in%20Africa-%202018-History%20Compass%20pp%201-10.pdf?sequence=1&isAllowed=y> (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).
- Global Financial Integrity (2019) “Illicit Financial Flows to and from 148 Developing Countries: 2006-2015”. Eskuragarri hemen: <https://www.gfintegrity.org/wp-content/uploads/2019/01/GFI-2019-IFF-Update-Report-1.29.18.pdf> (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).
- Gómez Isa, Felipe (2006) “Empresas transnacionales y derechos humanos: desarrollos recientes” *Lan harremanak: Revista de relaciones laborales* 1. zk., 55-94. Eskuragarri hemen: [https://ojs.ehu.es/index.php/Lan\\_Harremanak/article/download/4470/4002](https://ojs.ehu.es/index.php/Lan_Harremanak/article/download/4470/4002) (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).
- Gómez Isa, Felipe (2003) “El derecho al desarrollo: entre la justicia y la solidaridad” *Cuadernos Deusto de Derechos Humanos*, 1. zk., Bilbo.
- Gómez Isa, Felipe (1999) “El derecho al desarrollo como derecho humano en el ámbito jurídico internacional” *Universidad de Deusto*, Bilbo
- Ibhawoh, Bonny (2011) “The Right to Development: The Politics and Polemics of Power and Resistance” *Human Rights Quarterly*, 33. zk., 76–104. Eskuragarri hemen: <https://ibhawoh.humanities.mcmaster.ca/wp-content/uploads/2020/04/The-Right-to-Development.pdf> (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).
- Kirchmeier, Felix (2006) “The Right to Development – where do we stand?” *Friedrich Eber Stiftung*. Eskuragarri hemen: <https://library.fes.de/pdf-files/iez/global/50288.pdf> (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).
- Lanaren Nazioarteko Erakundea (2021) “Informe Mundial sobre la Protección Social 2020-2022: La protección social en la encrucijada: en busca de un futuro mejor” *Oficina Internacional del Trabajo*, Ginebra. Eskuragarri hemen: [https://www.ilo.org/secsoc/information-resources/publications-and-tools/books-and-reports/WCMS\\_842103/lang--es/index.htm](https://www.ilo.org/secsoc/information-resources/publications-and-tools/books-and-reports/WCMS_842103/lang--es/index.htm) (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).
- Li, Yuefen; Uribe, Daniel; Danish (2022) “Challenges and Potential to Revamp the Normative Framework on the Right to Development” *Society for International Development*, 65. zk., 136–144. Eskuragarri hemen: <https://pubmed.ncbi.nlm.nih.gov/36158161/> (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

Menes, Danthe (2016) “El derecho al desarrollo y la cooperación sur-sur. El caso de América Latina: Brasil y México como potencias emergentes.” (*Tesis doctoral*), *Universidad Autónoma de Madrid*, Madrid.

Munduko Bankua (2022) “La pobreza y la prosperidad compartida 2022: Corregir el rumbo”, *Cuadernillo del panorama general*, Banco Mundial, Washington, DC. Eskuragarri hemen: <http://mapadh.denebinc.com/informes/4-Panorama%20General%20Corregir%20el%20Rumbu%202022.pdf> (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

Mutua, Makau (2007) “Standard Setting in Human Rights: Critique and Prognosis” *Human Rights Quarterly*, 29 zk., 547–630. Eskuragarri hemen: [https://digitalcommons.law.buffalo.edu/journal\\_articles/564](https://digitalcommons.law.buffalo.edu/journal_articles/564) (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

Nazioarteko Diru Funtza (2017) Letter from IMF’s Special Representative to the United Nations addressing the UN Independent Expert on Debt and Human Rights, 27 July.

Ruiz Morato, Natalia (2016) “Estudio histórico-jurídico del derecho al desarrollo y su potencialidad en los órdenes jurídicos nacionales” *Pensamiento Jurídico*, 43 zk., 377-403. Eskuragarri hemen: <https://revistas.unal.edu.co/index.php/peju/article/view/60770> (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

Schrijver, Nico (2020) “A new Convention on the human right to development: Putting the cart before the horse?” *Netherlands Quarterly of Human Rights*, 38:2 zk., 84-93. Eskuragarri hemen: <https://journals.sagepub.com/doi/epub/10.1177/0924051920924547> (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

Teshome, Roman (2022) “The Draft Convention on the Right to Development: A New Dawn to the Recognition of the Right to Development as a Human Right?” *Human Rights Law Review*, 22. zk., 1–24. Eskuragarri hemen: <https://academic.oup.com/hrlr/article/22/2/ngac001/6542245> (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

Volio, Roxana (2008): “Género y Cultura en la Planificación del Desarrollo” *Fundación Canaria para el Desarrollo Social (FUNDESCAN)*, Kanaria Handia.

WWF International (2016) “Living Planet Report 2016. Risk and resilience in a new era”.

### **Nazio Batuen dokumentuak**

Nazio Batuak (2023) “World Economic Situation and prospects”. Eskuragarri hemen: <https://desapublications.un.org/file/1113/download> (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

Nazio Batuak, Asanblada Nagusia “Informe del Grupo de Trabajo sobre el Derecho al Desarrollo acerca de su 23er período de sesiones (Ginebra, 16 a 20 de mayo de 2022)”, A/HRC/51/39 Ebazpena (2022ko uztailaren 7koa). Eskuragarri hemen:

<https://undocs.org/Home/Mobile?FinalSymbol=A%2FHRC%2F51%2F39&Language=E&DeviceType=Desktop&LangRequested=False> (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

Nazio Batuak, Asanblada Nagusia “Segundo texto revisado del proyecto de convención sobre el derecho al desarrollo”, A/HRC/WG.2/24/2 Ebazpena (2022ko azaroaren 30ekoa).

Eskuragarri hemen:

<https://undocs.org/Home/Mobile?FinalSymbol=A%2FHRC%2FWG.2%2F24%2F2&Language=E&DeviceType=Desktop&LangRequested=False> (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

Nazio Batuak, Asanblada Nagusia, “Informe del Grupo de Trabajo sobre el Derecho al Desarrollo acerca de su 22º período de sesiones (Ginebra, 22 a 26 de noviembre de 2021)”, A/HRC/51/38 Ebazpena (2022ko ekainaren 27koa). Eskuragarri hemen:

<https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/G22/390/83/PDF/G2239083.pdf?OpenElement> (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

Nazio Batuak, Asanblada Nagusia “Informe del Grupo de Trabajo sobre el Derecho al Desarrollo acerca de su 21er período de sesiones (Ginebra, 17 a 21 de mayo de 2021)”, A/HRC/48/64 Ebazpena (2021eko ekainaren 21ekoa). Eskuragarri hemen:

<https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/G21/167/39/PDF/G2116739.pdf?OpenElement> (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

Nazio Batuak, Asanblada Nagusia “Proyecto de convención revisado sobre el derecho al desarrollo”, A/HRC/WG.2/23/2 Ebazpena (2020ko apirilaren 6koa). Eskuragarri hemen:

<https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/G22/302/65/PDF/G2230265.pdf?OpenElement> (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

Nazio Batuak, Asanblada Nagusia “Draft Convention on the Right to Development, with commentaries”, A/HRC/WG.2/21/2/Add.1 Ebazpena (2020ko urtarrilaren 20koa).

Eskuragarri hemen:

[https://www.ohchr.org/sites/default/files/Documents/Issues/Development/Session21/4\\_A\\_HRC\\_WG.2\\_21\\_2\\_Add.1\\_RegisteredVersion.pdf](https://www.ohchr.org/sites/default/files/Documents/Issues/Development/Session21/4_A_HRC_WG.2_21_2_Add.1_RegisteredVersion.pdf) (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

Nazio Batuak, Asanblada Nagusia “Draft Convention on the Right to Development”, A/HRC/WG.2/21/2 Ebazpena (2020ko urtarrilaren 20koa). Eskuragarri hemen:

[https://www.ohchr.org/sites/default/files/Documents/Issues/Development/Session21/3\\_A\\_HRC\\_WG.2\\_21\\_2\\_AdvanceEditedVersion.pdf](https://www.ohchr.org/sites/default/files/Documents/Issues/Development/Session21/3_A_HRC_WG.2_21_2_AdvanceEditedVersion.pdf) (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

Nazio Batuak, Asanblada Nagusia “Venezuela (República Bolivariana de)\* y Estado de Palestina\*\*: proyecto de resolución ”, A/HRC/42/L.36 (2019ko irailaren 20koa)..

Eskuragarri hemen:

<https://undocs.org/Home/Mobile?FinalSymbol=A%2FHRC%2F42%2FL.36&Language=E&DeviceType=Desktop&LangRequested=False> (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

Nazio Batuak, Asanblada Nagusia “Informe del Grupo de Trabajo sobre el Derecho al Desarrollo acerca de su 20º período de sesiones (Ginebra, 29 de abril a 3 de mayo de 2019)”, A/HRC/42/35 Ebazpena (2019ko ekainaren 25ekoa). Eskuragarri hemen:



<https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/G19/184/42/PDF/G1918442.pdf?OpenElement> (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

Nazio Batuak, Asanblada Nagusia “Venezuela (República Bolivariana de)\*: proyecto de resolución”, A/HRC/39/L.12 (2018ko irailaren 25ekoa). Eskuragarri hemen: <https://undocs.org/Home/Mobile?FinalSymbol=A%2FHRC%2F39%2FL.12&Language=E&DeviceType=Desktop&LangRequested=False> (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

Nazio Batuak, Asanblada Nagusia “Derecho al desarrollo. Nota del Secretario General”, A/73/271 (2018ko uztailaren 30ekoa). Eskuragarri hemen: <https://undocs.org/Home/Mobile?FinalSymbol=A%2F73%2F271&Language=E&DeviceType=Desktop&LangRequested=False> (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Mandataria (2016) “Frequently Asked Questions on the Right to Development” *Nazio Batuak*. Eskuragarri hemen: [https://www.ohchr.org/sites/default/files/Documents/Publications/FSheet37\\_RtD\\_EN.pdf](https://www.ohchr.org/sites/default/files/Documents/Publications/FSheet37_RtD_EN.pdf) (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

Nazio Batuak, Asanblada Nagusia “Resolución aprobada por el Consejo de Derechos Humanos el 29 de septiembre de 2016”, A/HRC/RES/33/14 (2016ko urriaren 5ekoa). Eskuragarri hemen: [https://ap.ohchr.org/documents/dpage\\_e.aspx?si=A/HRC/res/33/14](https://ap.ohchr.org/documents/dpage_e.aspx?si=A/HRC/res/33/14) (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

Nazio Batuak, Kontseilu Ekonomiko eta Soziala “Deuda pública, medidas de austeridad y Pacto Internacional de Derechos Económicos, Sociales y Culturales”, E/C.12/2016/1 (2016ko uztailaren 22koa). Eskuragarri hemen: <https://www.undocs.org/Home/Mobile?FinalSymbol=E%2FC.12%2F2016%2F1&Language=E&DeviceType=Desktop&LangRequested=False> (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

Nazio Batuak, Asanblada Nagusia “Transformar nuestro mundo: la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible” A/RES/70/1 (2015eko urriaren 21ekoa). Eskuragarri hemen: <https://undocs.org/Home/Mobile?FinalSymbol=A%2FRES%2F70%2F1&Language=E&DeviceType=Desktop&LangRequested=False> (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

Nazio Batuak, Asanblada Nagusia “Report of the World Commission on Environment and Development: Our Common Future”, A/42/427 (1987ko abuztuaren 4koa). Eskuragarri hemen: <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/N87/184/67/IMG/N8718467.pdf?OpenElement> (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/19).

Nazio Batuak, Giza Eskubideei buruzko Mundu Konferentzia “Declaración Final de la Conferencia Mundial de Derechos Humanos”, A/CONF.157/DC/1/Add.1 (1993ko ekainaren 24koa). Eskuragarri hemen: <https://digitallibrary.un.org/record/183092?ln=es> (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

Nazio Batuak, Asanblada Nagusia “Rio Declaration on Environment and Development” A/CONF.151/26 (Vol. I) (1992ko abuztuaren 12koa). Eskuragarri hemen: <https://www.un.org/esa/documents/ga/conf151/spanish/aconf15126-1annex1s.htm> (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

Nazio Batuak, Asanblada Nagusia “Declaración sobre el derecho al desarrollo”, 41/128 Ebazpena (1986ko abenduaren 4koa). Eskuragarri hemen: <https://www.ohchr.org/es/instruments-mechanisms/instruments/declaration-right-development> (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

Nazio Batuak, Kontseilu Ekonomiko eta Soziala “Informe del grupo de trabajo de expertos gubernamentales sobre el derecho al desarrollo” E/CN.4/1983/11 (1982ko abenduaren 9koa). Eskuragarri hemen: <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/G82/127/30/PDF/G8212730.pdf?OpenElement> (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

Nazio Batuak, Asanblada Nagusia “Convención sobre la eliminación de todas las formas de discriminación contra la mujer” 34/180 (1979ko abenduaren 18koa). Eskuragarri hemen: [https://www.ohchr.org/sites/default/files/cedaw\\_SP.pdf](https://www.ohchr.org/sites/default/files/cedaw_SP.pdf) (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

Nazio Batuak, Kontseilu Ekonomiko eta Soziala “Las dimensiones internacionales del derecho al desarrollo como derecho humano en relación con otros derechos humanos basados en la cooperación internacional, incluido el derecho a la paz, teniendo en cuenta las exigencias del nuevo orden económico internacional y las necesidades humanas fundamentales”, E/CN.4/1334, (1978ko abenduaren 11koa). Eskuragarri hemen: <https://digitallibrary.un.org/record/6652> (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

Nazio Batuak “Convención de Viena sobre el derecho de los tratados” A/CONF.39/27 (1969ko maiatzaren 23koa). Eskuragarri hemen: [https://treaties.un.org/doc/source/docs/A\\_CONF.39\\_11\\_Add.2-E.pdf](https://treaties.un.org/doc/source/docs/A_CONF.39_11_Add.2-E.pdf) (azken aldiz kontsultatuta: 2023/05/15).

Nazio Batuak “Proclamación de Teherán” (1968ko maiatzaren 13koa).

Nazio Batuak “Carta de las Naciones Unidas” (1945eko ekainaren 26koa).









Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



*hegoa*

INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL  
NAZIOARTERKO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA